

Nafarroako gazte euskaldunen onlineko komunikazioaren ezaugarri linguistikoak aztertzea da artikulu honen xedea. Ikasle hauek Nafarroan hazi dira eta bi hizkuntzekin bizi dira eta praktika elebiduna ohikoa da beren komunikazioan. Bereziki hiru alor interesatzen zaizkigu: lehenik, gazte hauen artean zein kode-alternantzia (KA) edo (CS) *code switching* eredu identifika daitezkeen jakitea, bigarrenik, euskara batua/euskalkiak nola islatzen den testu hauetan eta hirugarrenik, hizkuntza-egokitzea nola agertzen den. Lan honek adierazten du kode-alternantzia dela norbanakoaren identitatearen agiri bat, gazteen artean adierazgarritasuna eta alde ludikoa azpimarratzeko modu bat. Bertzaldetik, hizkuntza-egokitzearen zantzuak ikusi ditugu komunikazio honetan. Horrela, tokian tokiko hizkeraren ezaugarriak batzuetan nahasiak agertzen dira, bertakoak ez diren gazteek erabiltzen dituztelako, 'acomodation' delako fenomenoaz azpimarratuz.

Giltza-Hitzak: Whatsapp. Kode-alternantzia. Hizkuntza praktika. Euskara-erdara. Hizkuntza-egokitzea.

El objetivo de este artículo es analizar las características lingüísticas de la comunicación online de la juventud euskaldun navarra. Estos alumnos y alumnas han crecido en Navarra, conviven con los dos idiomas y la práctica bilingüe es habitual en su comunicación. Nos interesan especialmente tres aspectos: en primer lugar, averiguar qué alternancia de código (AC) o *code switching* (CS) se puede identificar; en segundo lugar, cómo se refleja el euskara batua y los dialectos en esos textos, y, en tercer lugar, cómo se manifiesta la acomodación lingüística. El trabajo muestra que la alternancia de código es una señal de identidad individual, un modo de remarcar la expresividad y el lado lúdico entre los y las jóvenes. Por otra parte, hemos detectado rastros de acomodación lingüística en la comunicación. Así, a veces se mezclan las peculiaridades de las distintas hablas locales, al ser utilizadas por jóvenes que no pertenecen a dichas localidades, acentuándose el fenómeno denominado *acomodation*.

Palabras Clave: Whatsapp. Alternancia de código. Práctica lingüística. Euskara-idioma extranjero. Acomodación lingüística.

L'objectif de cet article est d'analyser les caractéristiques linguistiques de la communication en ligne chez la jeunesse *euskaldun* navarroise. Ces étudiants et étudiantes ont grandi en Navarre, vivent dans les deux langues et la pratique bilingue est habituelle dans leur communication. Nous nous sommes particulièrement intéressés à trois aspects : en premier lieu, savoir quelle alternance de code (AC) ou *code switching* (CS) peut être identifiée ; en deuxième lieu, comment l'euskara *batua* et les dialectes sont reflétés dans ces textes ; et en troisième lieu, comment l'accommodation linguistique se manifeste. Ce travail montre que l'alternance de code est un signe d'identité individuelle, une manière de mettre en valeur l'expressivité et le côté ludique des jeunes. Par ailleurs, nous avons détecté des traces d'accommodation linguistique dans la communication. On constate parfois un mélange des particularités des différentes langues locales, utilisées par des jeunes n'appartenant pas à leur lieu d'origine, accentuant ainsi le phénomène dénommé *accommodation*.

Mots-clés : Whatsapp. Alternance de code. Pratique linguistique. Euskara-langue étrangère. Accommodation linguistique.

Hizkuntza praktikak “online”, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle euskaldunen artean

(Online linguistic practise among
Basque-speaking students of the
Public University of Navarre)

Ibarra, Orreaga

Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Euskal Filologia Saila.
Edificio Los Magnolios. Campus Arrosadia. 31006 – Iruña
orreaga@unavarra.es

1. Sarrera

Saio honen xedea da Nafarroako egungo gazteen whatsappen komunikazioen hainbat ezaugarritan sakontzea, azterketa kualitatibo baten bidez. Zehazki elkarrizketa hauen azterketaren helburua da ikuspuntu linguistikotik aztertzea CS-aren (code-switching) ereduak, eta bertzaldetik, aztertuko ditugu euskara batua-euskalkia dikotomia nola agertzen den eta, hirugarrenik, hizkuntza-egokitzapenaren ereduak ba ote dauden.

Izan ere, Whatsappetako eta ahozko komunikazioan praktika elebiduna da, eta bereziki, euskara-erdara kode-alternantzia da ohiko jarduna. Hemendik aurrera kode-alternantzia terminoa ere erabiliko dugu (KA); izendapena auzi sortzaile izan bada ere, kode-alternantzia, kode-txandaketa, kode-aldaketa erabili izan da. Lan honetan kode-alternantzia terminoaren aldeko hautua egin dugu, onartuena delako, nahiz batzuetan CS nazioarteko terminoa ere ageriko den. Hori dela eta, galdera hauei erantzuna ematen saiatuko gara, berteak berte: zein baliabide ortografiko eta linguistiko erabiltzen dituzte whatsappeko komunikazioan. Gazte hauen artean zein CS eredu identifika daitezke? Zein egoeratan aldatzen dute kodea? Zein faktore kultural, heziketakoak eta gramatikalak daude inplikatuak gazteen kode-alternantzian? Euskara batua-euskalkia nola agertzen da testuotan? Eta hizkuntza-egokitzapenaren ereduak ba ote daude?

Eguno Nafarroako gazte elebidunen elkarrizketa gehienak whatsappen bidez eginak dira (14), eta bat e-mailez (1). Horregatik, 15 komunikazio testu izanen ditugu aztergai. Denak motzak dira, ikasleek beren inguruan egindakoak, modu espontaneoan, baldintzarik gabe grabatuak. Gure azterketako euskal gazteak Ordenagailu Bidezko OBEko kodea erakitzen ari dira elkarren artean (CMC ing. *Computer-Mediated Conversation*) (Herring 1996) eta beren idazkera dute, beren lexikoa, beren arteko harremanak bideratzen dituenak. Izan ere, OBE izateak berezitasunak ematen dizkio hitzunek elkarren artean erakitzen duten diskurtsoari (Tories 1999). Izan ere, bai gazte zein heldu, OBE izateak baldintzatzen du hitzuneren arteko komunikatzeko moduaren forma (nola idatzi) eta gaia (zertaz idatzi).



NUPeko ikasleak praktikako klase batean

Xede honekin eskatu genien gure Unibertsitateko 8 ikasleri beren arteko komunikazioen onlineko adibideak ematea; bai whatsappena edo e-mezuena. Ikasle hauek Euskal Herrian hazi dira, nahiz eta gehienon ama-hizkuntza gaztelania izan, bi hizkuntzekin bizi dira eta taldean badira euskaraz egiteko joera handiagoa daukatenak eta bertze batzuk erdaraz egitekoa. Hau da egungo gazteen komunikazioaren errealitatea, ez baitira herri isolatu batean bizi, kanpoko harremanik gabe. Hara eta hona mugitzen dira, mota askotako harremanak dituzte, eta hizkera desberdina darabilte batzuek eta bertzeek. Erran bezala, Iruñekoak eta bertze herri euskaldunetakoak dira haien ikaskideak. Alegia, geolekto desberdina erabiltzen dute batzuek eta bertzeek eta, kasu bakoitzean horrela seinalatu dugu. Elkarriketa guztiek osatzen dute XXI. mendeko gazteen hizketamodu anitza, baina, aldi berean, ezaugarri komun batzuk dituen.

2. Oinarri teorikoak

Jakina denez, egungo komunikazio anitz txaten bidez egiten da.

Hasteko, agerian dago txatak oso behatoki egokiak direla hamaika aztergai eta jakintzatarako; hori dela eta, azken honetan euskaldun gazteen hizkeren ezaugarriak aztertu dira (Amonarriz 2008a, Ibarra, 2011, 2015, Pérez Gaztelu & Zulaika, 2016, 2019, Iriondo, 2017) baita hizkuntza aldaerak eta erregistroak eta horiekin lotuta dauden ideologiak ere (Amorrortu eta bertze, 2016, 2017). Ezin

ukatuzkoa da, mundu akademikoan ez ezik, lagunarteko solasaldietan ere gazteek idaztera jotzen dutela, gizarte-sareek aukeran jartzen dizkieten tresnak baliatuta (Bereziartua, 2013). Ahozko testu idatziak dira hauek, Zulaikak (2019) testu *min-tzidatziak* deitzen die.

Montes-Alcalá ikertzaileak dioenez, egungo teknologiarik esker, ahozko ohiko komunikazioa moduak ez ezik, esparru idatzi berriak arakatu behar dira (blogak, mezuak, sareko webguneak...), haietan baita CS aztertzeko modu berri bat. Hiztun elebidunak bi hizkuntzen, bi munduen eta bi kulturen artean bizi dira eta: "The analysis includes data from several Spanish-English bilingual blogs where the language choices reveal how bilingual individuals live in between two worlds, two cultures, and two languages they can and must use to fully express themselves" Montes-Alcalá (2007, 162).

Gómez Torregorentzat (2001) testu hauek honela defini daitezke: "textos escritos oralizados, a medio camino entre el habla y la escritura". Testu idatzien kontrara, non zuzenketak aplikatzen diren, "txatetan" inportanteena da abiadura, bapatekotasuna mezuen transferentzia egiterakoan eta informazioa hartzea. Erregistro honetan arau gramatikalak oso laxoak dira: pentsamendu bat hainbat esalditan agertzen da, zatietan. Elkarriketak ahozkoaren antza du, bertan argudio zatikatuak sartzen dira eta bapatekotsuna da nagusi. Jakinaenez, txatgileen artean argi nabari da hizkuntzaren funtzio autoespresiboa, hiztunaren emozioak kanporatzen dituen (Tusón, 1996). Bistanenez, ikuspegi diziplinartekoa lagungarria da erabat txatak ikertzeko.

Bertzaldetik, testuinguruz testuinguru badira aldaketa oso esanguratsuak hizkuntzari eta identifikazioari dagokionez, baina, badaude une eta testuinguru zehatzei lotutako aldaketak ere. Hitz egiteko era aldatzea esperientzia normala da, eta hiztunek aurkezteko edo bertzeen aurrean agertzeko duten era anitzekin batera doa joera hori. Alor honetan oso interesgarria da Pujolarrek eta bertzeek erraten dutena muda linguistikoei buruz (Pujolar, J.; González, I. & Martínez, R., 2010: 55) bizitzan zehar eta baita momentuaren arabera ere. Gazteen komunikatzeko modu honetan, harremanen tratua arabera (Watzlawick, 1967), solaslagunak parekideak dira. Horrez gain, kontuan izanzen ditugu gaur egun hiztun berrien inguruan egindako ikerketak, O'Rourkek eta Ramallok (2013) eta Amorrortuk eta bertze ikertzaileek (2016) diotena euskal hiztun berrien inguruan, baita Tejerinak (1992) eta Casaresek (2014) egindakoak ere. Egia da hizkuntza jarrerak konplexuak direla, balio, iritzi, ideologia eta sentimenduetan oinarritzen direlako; aldi berean, aldaketa biografikoak ere interesgarriak dira. Bertzaldetik, azken ikerketetan 'muda linguistikoak' eta 'aldaketa biografikoak' kontzeptuak kontuan hartzekoak dira. Gisa berean, Ikuspuntu diakronikoago bat hartu daiteke erabilera linguistikoetan aldaketa biografikoak ere kontuan hartzeko, eta, horrez gain, onartu genuen norbanakoei jartzen dizkiegun etiketak erlatiboagoak, gertagarriagoak, behin-behinekoak eta, horrenbertez, dibertsuagoak eta sakabanatuagoak direla (Pujolar eta beste, 2010: 55).

Bertze aldetik, kode-alternantziaren inguruko ikerketek aurrerapen handiak egin dituzte. Aspaldiko ikerketen arabera, Weinreichen arabera (1953/74: 73), kode-alternantzia ezinezkoa zitekeen, egoeraren aldaketarik gabe, horrez gain, al-

daketa hauek ezin ziren existitu enuntziatu baten barruan. Urte batzuk geroago, Poplackek (1980: 595) erakusten zuen hau ez zela horrela eta esaldiaren barruan gertatzen ziren kode-alternantzia asko erakutsi zituen; horiek aurreko proposamenak deuseztatzen zituzten eta erakusten zuten kode-alternantzia zela hiztun elebidunaren ezaugarri bat, huts bat baino. Poplacken (1980) hipotesiaren arabera kode txandakatzeak ez zien men egiten ez hizkuntza, ez hiztun hutsuneei: hizkuntza bietan hiztunek zuten hizkuntza-gaitasunaren seinalea zen, ordea.

Elebitasunaren ondorio edo ezaugarri bat da kode-alternantzia; alegia, diskurtso berean bi hizkuntza tartekatzea edo esaldien zatiak jarraian jartzea hiztun beraren diskurtsoan. CS-aren inguruko ikasketen arabera (Auer, 1998), kode-alternantzia da norbanakoaren identitatearen agiri bat, hiztun batzuek egina dagoena, baina, bertze batzuentzat egiteko bidean dagoena. Hiztunek erabakitzen dutenean kode-alternantzia egitea elkarriketaren txanda batean izan daiteke anbiguitatea sortzeko estrategia bat, edo estrategia bat identitate sozial bat baino gehiago izateko. Zentellak (2008: 8) aipatzen du bertze arrazoi bat: "those who become fluent in the dominant language feel more at ease and intimate in it and communicate with difficulty in their weakened heritage language, even distancing themselves from it". Ahozko jardunetatik abiatuta beste eredu batzuk sortu eta plazaratu dituzte –ahozkoaren eremukoak– hainbat ikertzailek, Myers-Scottonek (1993) eta Auerrek (1995, 1998).

Gure eremuan euskara-gaztelania kode-alternantziaren inguruko ikerketak hainbat egilek egin dituzte, batzuek umeen hizkera oinarri harturik (Ezeizabarrena, 1997, 2015), eta bertze batzuek helduena (Etxebarria M., 2004, Epelde I. & Oyharcabal B., 2008, Muñoa 1997, Rotaetxe 1994, Garin, Alegría Loinaz, Corral, 2017). Perpaus barneko eremuan dihardute Epeldek eta Oiharcabalek (2010) eta perpausen artekoan Aurrekoetxeak eta Unamunok (2011). Zulaikak ere (2019) euskal gazteen txatetan sortzen den kode-alternantziaren tipologia aztertzen du, eta haren esanetan ahozko eremuko kode-alternantziaren ezaugarriak sareko elkarriketetan ere antzeman daitezke ezaugarri horiek berak.

Ondorengo ikerketek erakutsi dute CSa oso ohikoa dela (Gumperz & Hernández Chávez, 1972), zenbait hiztunendako araua eta ohiko jarduna izatera heldu da, ez da salbuespen bat. Denok dakigu, eta Romainek azpimarratzen du (1995: 294) kode txandakatzea, ospe txarra duen arren, ukipenean dauden hizkuntza guztietan agertzen dela, eta horretarako arrazoi bat da hiztunarentzat taldearen identitatearen adierazgarria dela. Bertzaldetik, (Garin, Alegría eta Corral 2017) ikertzaileen proiektua kode-alternantziaren analisisia eta prozesamendua bideratzeko, errazteko edota azkartzeko baliabide informatikoak garatzea izan da; hau da, corpus elebidun nahiz eleaniztunetan hizkuntza/hizkera batetik bestera noiz aldatzen den detektatzeko gai diren sistemak garatu dituzte.

Hainbat autorek aztertu dute elkarriketan sortzen den CSa, eta zentzu honetan proposatzen dute CSa dela «kontestualizazio seinale bat» elkarriketan sortzen diren hainbat ezaugarri onartzen dituena; dirudienez, teoria hau onartu da azkeneko literaturan (cf. Auer, 1998). Edonola ere, CS gertatzen den momentuan, faktore funtzionalek eta pragmatikoek (inguruneak, parte-hartzaileek, elkarriketa gaiak) baldintzatzen duten fenomenoraren aurrean gaude" (López Morales, 1993: 173).

3. Metodologia

Metodologiaz den bezainbertze, Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) ikasleak hartu genituen ikergai. Izan ere, uste dugu egungo unibertsitateko ikasleen gizataldea etorkizuneko eredu soziolinguistikoak ehuntzeko gizatalde bereziki esanguratsua izan daitekeela. Subjektu adin nagusiak dira, baina oraindik gazteen taldekoak. Haien kultura eta prestakuntza mailarengatik hizkuntza aniztasuna ikeritzeko subjektu biziki aproposak dira: gizatalde horretan biltzen baita gazte eleaniztunen ehuneko handiena.

Gure ikasle horiei eskatu genien bolondresak izatea beren whatsapp elkarriketak emateko; ikasleak 18-25 urte bitartekoak dira eta genero-banaketan parekideak. Behin azalduz gero datuak ikerketa helburuarekin erabiliko zirela, nahi zuenak eman zizkigun whatsapp batzuk.



NUPeko ikasleak Campuseko liburutegi ondoan

Gure ikasleak D ereduari ikasiak dira, eta ikasketa guztiak euskaraz egin dituzte; jakina denez, elebidunak dira. Nolanahi dela ere, komunikazio arduragabe-koan gaztelania nagusitzen da, nahiz eta lagun batzuekin komunikazioa batzuetan euskaraz egiten duten. Nolanahi dela ere, beren elkarriketa-kideek ez dute zertan Unibertsitate ikasleak izan behar derrigorrez, beren lagunak dira, batzuk Unibertsitatekoak eta bertze batzuk ez.

Erran bezala, gure ikasleek beren lagunarteko grabaketak eman dizkigute xedea azaldu diegunean; baina ez dute nahita grabatu guri emateko. Lagina izan da Unibertsitateko ikasleak hartzea, eta haiek beren lagun gazteekin egindako el-

karrizketak eta whatsappak aztertzea; hauek ordezkatzan dutelako oso ongi gaur egungo euskaldun gazteen soslai.

Horrela, Iruña eta bere inguruko gazte euskaldunen arteko 15 elkarrizketa bildu ditugu. Gehienak whatsappak dira, eta e-mail bat. Elkarrizketak beraiek eginak dira alfer-solasean daudenean, giro lasai eta arduragabekoan. Giroa informala eta familiarra da eta bertan haien artean komunikatzeko modua erakusten dute. Ez dago behatzailearen paradoxarik, izan ere, ez dakite grabatuak izanen direla, gero, baimena eskatzen zaie argitaratuak izateko eta dena anonimo bihurtzen da.

Argi dago whatsappak erabiltzeko, erabiltzaileei eskatu behar diegula baimena. Honenbertzez, ziurtatu behar diegu ikerketarako xedearekin erabiliak izanen direla eta denak anonimoak izango direla; horrez gain, elkarrizketa naturalaren adierazgarriak izan behar dute eta horretarako instrukzioak eman genizkien ikasleei. Alegia, erran genien beren kideekin zeudenean ez zela komeni bertzei erratea zein helbururekin ari ziren. Bertzela, dena desitxuratua gelditi zitekeen, jakitun baitira gazteen artean kode-alternantzia ez dela oso onartua eta abar. Behintzat, ohartarazi genien xede linguistikorik ez zegoela datuen bilketan, alegia, horretaz konturatuz gero, bapatekotasuna galduko litzateke. Honenbertzez, partehartzai-leak ez zeuden baldintzatuak, ez zekiten horretan ari ginela. Nolanahi dela ere, oso eduki pertsonala duten materiala ez digute eman, beti haien esku dago hori ikerketarako material bezala erabiltzea ala ez. Erran bezala, ohiko modu arruntan egindako elkarrizketak bildu eta haiek aukeratu dituzte.



NUPeKo neska talde bat telefono mugikorrekina eskutetan

4. Elkarriketa. NUP-eko ikasleak whatsappen bidez

Whatsappen bidezko elkarriketa da hau, Iruñeko bi lagun artekoa, bata (B) 21 urteko neska da. Bere laguna (A) da, azterketa prestaketan garaia da eta bien artean bertze lagun baten agurra prestatu nahi dute Perura joan behar duelako. Biek D ereduan ikasi dute, eta lagun-taldearekin eta gainerako familiarekin euskaraz eta erdaraz aritzen dira.

A: Epa Itsaso! Zerbait pentsatu duzue Haizearen agurrarako? Hilabete bat geratzen da Perura joateko!

B: Kaixo Irene! Ba eguberrietan zehar horretan aritu gara, zerbait prestatzen, eta Urbanan akanpada egitea pentsatu dugu, zer iruditzen?

A: Ze guay, superongi! Haizeari asko gustatuko zaio, eta besteak ados daude?

B: Bai, orduan zuregatik no problem, ez?

A: Ez, kojonudo, ze egunerako adostu duzue? otsailak 5 geratu ginen ez?

B: Bai, uste dut libre duela bakarrik asteburu hori, horregatik si o si egin behar dugu asteburu horretan

A: Orduan primeran, asteburuan geratuko gara?

B: Bai, dena den hitz egingo dugu mas de trankis asteburuan

A: Bai, hobeto, bihar arte mxx

Iruzkina

Bistan denez, Iruñeko gazte hauen arteko elkarriketan argi ikusten da euskara batuko fonologia, alegia, silaba osoak agertzen dira eta disimilazio eta asimilazio prozesurik ez dago. Alegia, *(oa > ua, -ia > -ii) modukorik ez dago, edota bokal arteko kontsonante galtzerik ez dago. Fonetika aldetik, euskara batu batua dela eredu erran daiteke.

Ortografia aldetik, hitzen murrizketak ez dira ugariak, baina, badira batzuk, adibidez: *mxx*, kasu honetan bokalik gabe idazten da. Bertzaldetik, gaztelaniazko hitzek ez dute azentu diakritikorik: *Si*, *mas* eta komaren erabilpenik ez dago, *K* grafemak *q* eta *c*-ren ordean erabiltzen da. Horrela, gazte punk estiloa azpimarratuz eta *k*-rekin idatziak agertzen dira hainbat hitz: *tranki*, *kojonudo*, *akanpada*.

Erregistro informala agerikoa da, esperatzekoa denez, elkarriketa honetan. Hasierako agurra informala da: *epa itsaso!* eta aditz laguntzailerik gabeko esaldiak ere badira: *zer iruditzen?* Bertzaldetik, egungo gazteen hizketamoduak ageri dira, *super*-en erabilpenarekin: *superongi*. Jakina denez, exajerazioa da gazte hizkeraren ezaugarri bat (Zimmermann, 2002: 153). Tusonek (1996) dioenez, esapide horiek harremanak egiteko osagaiak dira, belaunaldi berekoen artean harremana sendotzeko eta taldearen sintonia antolatzeko.

Horrez gain, García Moutonek (2003: 80) adierazten duenez, emakumeek gehiago erabiltzen dituzte partikulak edo atzizki indartzaileak. Izan ere, emakumea modu publikoan hitz egiterakoan zentsuratua izan da, baina, modu pribatuan askatasuna utzi zaio bere sentimenduak azaltzeko, eta horrela:

(..) Los refleja de una forma más abierta en su modo de hablar y, para ello, en general recurre más que el hombre al uso de partículas o sufijos intensificadores y de palabras con una carga emocional clara.

Kode-alternantziari buruz Zulaikak eta Perez Gazteluk (2016: 109) hauxe diote: "Aitor dezagun hemen aipatu bertzerik ez dugula egingo gazteek (batzuek gehiago beste batzuek apenas) adierazgarritasuna lortzeko darabilten baliabide indartsu bat; *Code-switching* (CS) edo kode-alternantzia (eta/edo *Code-mixing*, kode-nahasketa)" dela. Iltze berean jotzen du Amonarrizek (2008: 176) eta Zulaikak (2019) ere. Gainera, Iriondoren arabera hizkuntza-aldaketa eginez hitzunek erabiler metaforikoa eta enfatikoa lortzen dute (Iriondo 2017: 26).

Testu honetan kode-alternantziaren ezaugarriak agerikoak dira, alde batetik emozioa adierazten duten esapideetan: *ze guay, superongi, kojonudo*. Bertzaldek, bada bertze KA bat, eta hori "si o si" da; gisa honetan gazte honek adierazten du esaldi egin baten bidez, ezinbertzez hori egina egon behar duela, alegia, indarra azpimarratzeko erabiltzen da. Eta jarraian emandako CS honetan, "hitz egingo dugu *mas de trankis* asteburuan", hiztunak nolabaiteko konplizitatea erakusten dio bere lagunari. Bertze kasu honetan, CS euskara/ingelese da: "orduaz zuregatik *no problem*". Gisa honetan, konplizitatea bilatzen da eta aldi berean, umore ukitu bat ematea da xedea.

Kode-alternantziari buruz, erran behar da hainbat egilek eztabaidatu dutela CS-aren eta hizkera emozionalaren arteko lotura, eta zehazkiago CS-ren erabilpena (Dewaele, 2010) distantzia eta hurbilpena erakusteko. Askotan inplikatuak dauden faktoreak dira faktore psikologikoak, adibidez umorea emateko, baita kulturalak ere, adibidez *en plan* tertatzea da gazte hizkeraren bereizgarri bat. Erran bezala, kasu hauetan erdal esamoldeak dira kode-alternantziaren ohiko prozedura bat, gazteen artean elkartasuna sortzen dutenak. Testuingurua da kode-alternantziaren prozesuaren bertze atal bat, elebidunen artean sorturikoa, eta honek inplikazioa dauka eguneroko hizketan, hizkuntza bat eta gero bertzea erabiltzeko momentuan.

Bukatzeko, bertze euskalkietako ezaugarriak agertzen dira hainbat hitzetan; hori dela eta, *hobeto* hitza darabil Iruñeko gazte honek; argi dago ez dela hemengo aldaera, baina, erdialdeko eta mendebaleko aldaera hau orokortu da, nolabaiteko 'dialect levelling' erakutsiz. Aldaera hau eta *ondo* zabaltzen ari dira gaur egun erraz Nafarroako gazteen artean.

5. Elkarriketa. Donostiako eta Iruñeko lagunaren arteko whatsapp-pak

Hau da gazte hauen soslaia: 19 urteko neska bat eta mutil bat, adin berekoak. Neska Donostiakoa da (A), eta mutila Iruñekoa (B). Unibertsitateko lagunak dira, aurreko urtean elkarrekin egon baitziren Unibertsitatean. Neskarentzat euskara da nagusi lagunarteko komunikazioan eta baita etxean ere; mutilak D eremuan ikasi du, baina, eguneroko jardunean euskaraz eta erdaraz aritzen da.

A: Zmz? desaparecidoo

B: Azterketa bat bukatu berria asik oain pote bat artzen klasekoekin

- B: Zer moduz gazteiztik?
- A: Ba klasean de rayada. Gasteiztik dpm baña aurten ya bastante responsable ta ordun estresatua
- A: Zmz jun da azterketa?
- A: Karreran gustora?
- B: Dpm. Notaza fijo.
- B: Baibai, baina ez nago gasteizen...
- B: Ostegunean 9etan gasteizen agertuko naz a liarla petarda.
- A: joe ba ni iual enao
- A: Ze santotomasak dia donostin ostiralen ta iual ostegunen nijoa aruntza
- B: Ordun ez ara cooleko tariman egongo dándolo todo?
- A: Joeeee esk zu duela asako etzeala etortzen
- B: Azterketak ondoren hilabte bat dut festa eta gasteizen denbora asko pasatuko dut.
- B: Nai baduzu emango dizkizut gramatikako klaseren bat
- B: Nik gaintituta dakadala
- A: 7an dakat azterketa pufff.
- B: Nik 7an festa dakat. Nai baduzu bidaliko dizkizut erantzunak azterketan zauden bitartean
- A: Bakizu zein dan azterketa edo?
- B: Diotenez urtero azterketa bera jartzen du Larreak
- A: Eske aurten beste irakasle bat da...
- B: Pos ezingo dizut ezer txibatu...
- A: Azkenean santotooooo
- A: Zu zatoz gasteizaa?
- B: Klaroooo
- A: Joeeee justu ni ez naonean.
- B: Afaria dakat lagun batzuketan.
- A: Aguxtooo
- B: Ba ondo pasaaaaa
- A: Ea urtarilen ikusten garen.
- A: Baibaiiii lenengo ostegunen etorri
- A: Ikusiarte

Iruzkina

Ortografia aldetik, laburtzapenak daude, alde batetik silabarenak, apokopea eginez: *santotoo* 'Santo tomasak', eta bertetik siglak, *dpm* 'de puta madre' bi aldiz erabilia. Hitzak laburtuta idaztea sintonia bilatu nahi izatearen bitarteko lexikotzat jo daiteke. Baina, aldi berean, bokalen errepikapena dago hitzaren bukaeran: *oooo*, *klarooo*, *joeeee*, *gasteizaa*. Hitzaren erranahia «goxatzeko» igurzkari sabaiau-rreko ahoskabea <x> agertzen da <s>-ren ordeztuetan: *Aguxtooo*. Jakina denez, bi palatalizazio mota ditugu euskaraz, inguramendu fonetiko-fonologikoak

eragina, alegia, asimilazioz sortuak eta bustidura adierazgarria (Oñederra 1990: 18) edo semantikoa. Bi hauek bat egiten dute txatetako idazkeran. Bai batak eta besteak ere hurbiltasuna, konplizitatea eta naturaltasuna adierazteko bitarteko-zat dauzkate txatgileek.

Bukatzeko, huts txikiak ez dira zuzentzen: *asako* (asko).

Bertzaldetik, argi dago A hiztunak (neska) gipuzkera erabiltzen duela eta, hori dela eta, hainbat bokal arteko kontsonante desagertzen dira. Alegia, Donostiarrak laburtzapenak erakusten ditu eta bokalen arteko *-r-* eta *-g-*ren kontsonante kenketa: *dia* 'dira', *iuall* 'igual' eta bertzelako aldaerak, alegia, monoptongaketak *joan > jun* eta bokal asimilazioak: *Donostin* eta aditz aldaerak: *nijoo* 'noa', *enao* 'ez nago', *dakadala* 'daukadala'.

Iruñekoak, ordea, euskara batu batuagoan egiten du, baina, kasu batean *dakat* erabiltzen du, ziurrenik "bertzeari egokitzeko" modu bat.

A: *7an dakat azterketa puffed.*

B: *Nik 7an festa dakat*

Bertzaldetik, gramatika aldetik nabarmendu behar da *-la* morfemaren erabilpena hainbat esalditan: "Nik gaitututa *dakadala*". Kasu honetan, erdal esaldietako *que*-rekin hasitako esaldien kalkoa islatzen da: "que yo ya lo tengo aprobado".

Elkarrizketa honetan kode-alternantzia (CS) erabiltzen da esaldi eginen bat tartekatu behar duenean, umorea edo konplizitatea adierazteko. Hurrengo adibidean ikusten denez, gaztelaniaz adierazten dira umorezko esaldiak; txiste modukoak, harremana sendotzeko eta taldearen sintonia azpimarratzeko erranak.

-agertuko naz a *liarla petarda*.

-Ordun ezara cooleko tariman egongo *dándolo todo*?

-Ba klasean da *rayada*

Bertze ezaugarri bat da esaldiak kolpe batez erraten direla: *dpm*, *notaza fijo*, *rayada*. Hitz hauek kontzeptu luzeagoak adierazten dituzte. Denek elkarren arteko komunikazioa errazten dute eta elkartasuna sorzen dute. Kolpe batez komunikatzea baita xedea.

Diskurtso-markatzaileak erabiltzen dira erlazionatuta dauden testu zatien arteko lotura zein eragiketaren bitartez: azalpena, zuzenketa, laburpena eta zehaztasuna gauzatu den erakusteko (Alberdi, 2001). Erdal lokailuak eraldatuak ageri dira *pues > pos* edo euskaratuak: *asike* edo *asik* 'así que'. Markatzaile hau oso erabilia da euskaraz, bistan denez, lexikalizatua agertzen da (Ibarra 2011: 131).

6. Elkarrizketa. 19 urteko bi lagunen berbaldia whatsappena

Bi gazte hauek ikaskideak izan ziren Gasteizen, klase berean egon ziren, bata Portugaletekoa da (B) eta bertzea Iruñekoa (A). Iruñekoak idazten dio kurtsoa nola doan jakiteko; biak D eremuan ikasiak dira eta euskara erabiltzen dute gehienbat eremu akademikoan, nahiz eta lagun taldean gehienok euskaldunak izan. Elka-

rrizketan nabari da biak aspaldian ez direla elkarrekin egon, biek nahi dutelako bertzearen berri izan.

A: Aspaldikooooo

A: Zelan doa aurtengo kurtsoa

B: jaunaaa

B: Aspaldiko bai zmoz!

B: Oaindikan ezteu asterketaik ein...

B: Bihar dakat

B: Zu zelan?

A: Nola bizi zaeten...

A: Azterketa bat bukatu dut oaintxe ta *dpm* atea zait.

A: Ez nekien watxapik zenunik

B: Oaintxe gabonetan jarri dut

A: Nik aste ontan ingles ta ekonomia dazkat

B: Ze karrerari?

A: Nik ere abendu erdian jarri nuen.

A: Azkenean

B: Ta ondo?

A: Oaingoz deretxon 7,1 atea dut.

A: Ta gaur historia egin dut ta *dpm*, errusiar erreboluzioa erori da.

B: Joder beste pertsona bat dirudizu.

B: Ta asko zeate karrera ortan?

A: 60 bat gara

B: Iruñean bertan?

A: Bai

B: Ta osteunetan? Juerga?

A: Gateiza

B: Osteunero?

A: 5 etan jun naiz jada kurtsoa asi denetik

A: Ta 31an berriz, ikusiko zaitut? Azterketak bukatu dituzula ospatzeko si-
kiera

B: Oraindik ez dakit baina abisatuko dizut

A: Alere seguruenik egun pare bat pasatuko ditudala asik pasatuko naz zuek
agurtzera

B: Hori hori, eingo dizugu lekua klasean

A: Atzeko aldean berbetan egoteko klase osoa aurreko urten bezala.

B: Hoixeee!

B: Hitzeingo dugu banoa klasera ta.

A: Adoos. Zorte on azterketetan ta ikusi arteee.

Iruzkina

Ortografia aldetik, adierazgarritasuna lortzeko, baliabide ortografikoak erabiltzen dira. Erraterako, <x> grafemaren erabilpenak funtzio adierazgarria egiten du eta baita bokalen errepikapena ere: *aguxtooooo*, *arteee*, *adoooos*. Bertze aldetik, laburtzapenak daude, laburtzapen hauek finko bihurtzen ari direlako susmoa dugu; alde batetik hitza laburtzen da: *dpm* (de puta madre), *asik* ‘así que’, *zmz* ‘zer moduz zaude’, *esk* ‘es que’. Hauek dira, behintzat maizen erabiltzen direnak. Pérez & Zulaikak (2016: 116) ikertzaileek ere antzekoak biltzen dituzte.

Kode-alternantziari dagokionez, testu honetan erdal esamoldeak tartekatzen dira, gure ustez gazteen artean elkartasuna sortzen dutenak, kasu hauetan bezala:

– Gasteiztik *dpm* baña aurten ya *bastante responsable*

Hirugarrenik, erran behar da *hizkuntza-egokitzea* sortzen dela hitzun gazte hauen arteko solasaldian. Jakina denez, hizkuntza–egokitzea da prozesu bat, zeinaren bidez hitzunak aldatzen baitu bere hizketamodua bere elkarriketatzailearekin egokitzeko. Gilesen (Giles & Ogay, 2007) lanak honen inguruan, CATen ikerketan (Communication Accommodation Theory) oso interesgarriak dira. Teoria honek azpimarratzen du hiru ardatz hauen arteko lotura: lenguaia, testuingurua eta identitatea. Eta adierazten du nola faktore interpersonalek eta taldean sortzen direnek eramaten duten hizkuntza aldaerak egokitzen. Teoria honen fokoa (Giles & Johnson, 1987) da azaltzea zein arrazoi dauden hizketaren egokitzaren atzean, gizakion interakzioan gertatzen dena, alegia. Eta hizketan sortzen den aldaketa hori konektatua dago norbanakoaren sinismenekin, jokaerekin eta komunikatzeko esperientziarekin.

CAT-en teoriaren arabera, hitzunak murrizten ditu edo handitzen ditu haien arteko desberdintasunak eta antzekotasunak eguneroko komunikazioan; bai online-ko komunikazioaren bidez, baita aurrez aurreko komunikazio tradizionalen ere. Horrela, bi kontzeptu kontrajarriak, baina osagarriak direnak, daude teoria honen bihotzean: *Konbergentzia* eta *dibergentzia*.

Teoria honen argitan argi azaltzen da testuetan aurkitzen dugun euskalkietako ezaugarri batzuen nahasketa, nolabaiteko hibridazioa erakutsiz, batzuek eta bertzeek erabiltzen dituztelako toki bateko eta bertzeko aldaerak. Amonarrirek (2003) dioten bezala, gazteen hizkerari erreferentzia eginez: “Iturri asko nahasten dituen hizkera bat da: nahasten du batua, nahasten ditu euskalkiak eta nahasten ditu erdarakadak”. Hori hizkuntza-egokitzaren zeinu bat da, non hitzuna egokitzen den eta solasakidearen hitzak erabiltzen dituen.

Gure adibideko gazte hauek aurreko urtean elkarrekin egon ziren ikasten Gasteizen; bata Portugaletekoa da, bertzea Iruñekoa; orduan Iruñekoak honako aldaerak erabiltzen ditu berarekin mintzo denean nolabaiteko konplizitate keinua eginez: *zelan?*, *berbetan*, *pasatuko naz*, *ondo*, *jun* ‘joan’. Gasteizen toki guztietako gazteak biltzen direnez, euskalki askotako aldaerak entzun daitezke. Gainerako hitzetan, Nafarroako gazteak silaba osotuagoak egiten ditu, asimilaziorik eta disimilaziorik gabekoak. Baina, Portugaletekoak ere bertakoak ez diren aldaera batzuk erabiltzen ditu: *ezteu* (gipuzkerarena da) edo *dakat?*. Gure usteetan, erabilera

horrek adierazten du indarra edo balio positiboa hizkera horrekiko; hainbat ikasketek adierazi dute zenbat eta joera baikorragoa den hizkuntza edo dialekto batekiko, hainbat eta hizkuntza horren aldaera gehiago erabiltzen direla: "those speakers whose perceptions or attitudes towards Basque are more positive will be more likely to incorporate features of this language" (Elordieta & Romera, prentsan, 40).

Lagunarteko lotura sendotzeko eta benekotasuna azpimarratzeko tokiko hizkerak erabiltzen dira. Amorrortuk eta bertzeek (2016: 190) dioten bezala:

Euskaldunberria-batua eta euskaldun zaharra-euskalkia loturek indarrean diraute gaur egun. Lotura indartsuak dira eta euskaldun zaharrarekin lotutako benekotasun ideologiaren muinean dago; izan ere, ikusi dugunez, euskalkiak benetagoatzat jotzen dira eta batua, ordea, artifizial ikusten da.

Bistan denez, oso balioespen positiboak daude euskalkien inguruan. Amorrortuk (2016: 153) dienez: "Ez dugu euskalkien balio negatibo bakar bat ere aurkitu; alderantziz, partaideek euskalkien oso balioespen positiboak egiten dituzte, salbuespenik gabe".

Bertzaldetik, gaztelaniaren kalkoak agerian daude, gaurko euskaldun gazteen eta ez hain gazteen artean berezkoak direnak. Kalko morfologikoak, aditzarenak, izen morfologikoarenak eta orden ingurukoak agertzen dira, behean azpimarratuak:

- zer moduz Gasteiztik? (¿Qué tal por Vitoria?)
- Errusiar Erreboluzioa erori da (Ha caído la Revolución rusa)
- urtarrilan ikusten garen (A ver si nos vemos en enero)

7. Etxarriko neska bat eta Iruñeko bertze bat, whatsappean

22 urteko bi neska dira, oso lagunak. A hiztuna Iruñekoa da eta NUPeko ikaslea eta D ereduan egin ditu ikasketak. Bi hizkuntzetan aritzen da. B hiztuna Etxarri Aranazkoa da eta ingurune gehientsuenean euskaraz aritzen da.

A: Ze, hasi zara berriz korrikan?

B: Ya baten nen denbora asko ezez einbe, ta gaur fan neiz camreraño ta buelta korriken, biyer ya mendieño etzokoneiz

A: Beti haraño juten zara?

B: Ez ez etten det beti iguela, egun bet lasei ta gero karrerille hartzen dut.

A: Bai nik ere antzera iten dut

B: Eske Sandonato Puyerroi ta oik di horrengatik, por si me informo. (por si acaso)

A: ya...atzo mendira joan ginen kuadrillakin

B: joder ze inbiye do kriston egueldiye, gaur gabian akatu et paper rolo oso osuat, atzo nen porkeyek ein zuten efekto rebote, a golpetazo de frenadol.

A: Ni naiz katarrokin baina hobe nago ya...

B: Ni debei, ya uztet hobe beye goiarte neiko lanpetuta ibildu neiz, launbe-tia izendu zien attunan ta amiñan urresko bodak ta ibildu giñen dena prestatzen erotuik, en plan bideo ta ola beño guai ya ar...askaki, asike proposatu planen bat que mi respuesta será sí.

A: Esango diet joni ta Maiderrri pentsatzeko zerbait

B: Biye, ez dakigu non joan, zegatik zozo pastel oik, azkeneko momenteño ez die mugitzen, geldituko ga 7terdi aldia, ya no (nago) Tudelan.

A: Bale...ni bihar hasiko naiz apunteak begiratzen...

B: Oye... hasi zara ikusten Anato?, eske arek esan zauen, baya eske no me apetece nada, baya ya lo siento, baya no, he subrayau las dos primeras páginas ta listo, porke tio oporretan nau, ta ikusiozu ordutegia? Ditugu pilla bat ordu solte ta libre.

Iruzkina

Ortografia eremuan, bistan denez, *ñ*, *ll* eta *y* grafemak erabiltzen dira: *amiña*, *momenteño*, *egueldiye*, *pilla* fonemen palatalizazioa erakusteko, *i*- bokal osoa edo bokalerdiaren ondoan. Horretaz aparte, *y* grafema dugu kontsonante antihiatikoa sartzen delako *-ie* > *-iye* bukaeran. Horrez gain, laburtzapenen erabilera ohikoa da gazteen artean: *Anato* 'Anatomía' eta baita <*k*>-ren erabilpena ere <*qu*>-ren orde, ohiko lokailuetan, erdi lexikalizatuak daudenetan: *eske*, *porke*.

Bistan denez, B hiztunak Sakanako hizkeran idazten du erabat. Amorrortuk eta bertze ikertzaileek (2016: 160) euskalkia laguneren arteko hizkerarekin lotzen dute, baina, erregistro informala gabezia azpimarratzen dute.

Euskalki-aldaera erregistro informalaekin, laguneren arteko hizkerarekin lotzen bada ere, uste dugu hitzun berri askok beren errepertorioan falta dutena ez dela euskalkia, erregistro informala erabili ahal izatea baino.

Kasu honetan, badirudi erregistro informala eta euskalkia izan badagoela; izan ere, B hiztunaren mintzoan eta idazkeran Sakanako hizkeraren ezaugarriak agertzen dira, alor guztietan. Fonologian hauek ditugu: *g*- protetikoa: *goiarte* 'orain arte', *guai* 'orain'. Bokal arteko *-r*- eta *-b*-ren desagertzea: *egueldie*, *nei* 'neri', *aldia* 'aldera', *oik* 'horiek', *akatu* 'akabatu'. *Ai* diptongoa > *ei* bihurtzen da: *neiko* 'nahiko', *lasei* 'lasai', *debei* 'ere bai' eta *oa* > *ua*: *osuat* 'oso bat' *-ua* > *-ue*: *iguela*. Horrez gain, *-ia*- taldea *-iye*- egiten da kontsonantea tartekatuz: *inbiye* 'enbidia', *biyer* eta 'baina'-ren aldaera eta burutzapen desberdinak: *baya*, *biye* dira eta bertze aldaera fonetikoak: *etzokoneiz* 'igoko naiz'. Halaber, *joan* aditzean bertako aldaera erabiltzen da: *fan* 'joan' eta *gabe* > *be* aldaera ere ageri da: *einbe* 'egin gabe'. Aditz morfologian, *-du* morfema dugu aditz partizipioetan: *izendu* 'izan', *ibildu* 'ibili'. Eta egon aditzaren aldaera *no* 'nago' da eta *izan* aditzaren aldaerak ditugu: *ga* 'gara', *de*, *die* 'dira', eta *edun*-en aditz laguntzailea *det* da: *akatu* 'akabatu dut', *ustet* 'uste dut'. Lexikoan ere bertako aldaerak erabiltzen ditu: *attuna* 'aitona', *amiña* 'amona', *akatu* 'akabatu'.

Kode-alternantziari dagokionez, gaztelania-euskara CS-a agerian dago; xede desberdinekin egiten da. Kasu batzuetan alde ludikoa azpimarratzen da euskara-gaztelaniaz txandaketan, bertze hizkuntzetan gertatzen den bezala (ik. 13.1). Izan ere, ez dugu uste inolako oztoporik dutenik ikasle hauek esaldi horiek euskaraz

emateko. Ohar bedi, gaztelania txertatzen dela *baina*-ren ondoren, esaldiaren bigarren partea osatuz:

- baya ya lo siento.
- baya no, he subrayau las dos primeras páginas ta listo.
- baya eske no me apetece nada.

Bertze kasu honetan, umore pixka bat emateko egiten da:

- asike proposatu planen bat *que mi respuesta será sí*.

Eta esaldi eginak sartzeko, baina, aldi berean, enpatia azpimarratzeko eta lagunen arteko harremana sendotzeko:

- atzo nen porkeyek ein zuten *efekto rebote, a golpetazo de frenadol*.

Porkeye hitza erabiliz ikusten da euskara batua artifiziai xamar egiten zaiela gazte hauei, hiztun gutxiko hizkuntzetan gertatzen den bezala (Dorian, 1981; O'Rourke; Ramallo, 2011). Amonarrizek (2008: 173) dioenez, "batzuetan, idazkiak irakurrita erran liteke erdarakadak sartzea ez zaiela batere axola, baina inondik inora nahi ez dutena batuaz idaztea dela".

Erran bezala, Sakanako hizkera erabiltzen du, baina erdarazko gazteen mintzoen klitxeak ere bai: *en plan*, erraterako:

- ibildu giñen dena prestatzen erotuik, *en plan* bideo

En plan markatzaile metadiskurtsiboa da, elkarrizketakoa. Zenbaitetan aringarri edo leungarri funtzioa egiten du eta gazte hizkeraren ezaugarri garrantzitsua da. Erdal gazte hizkeran erruz erabiltzen da; horrela dio Calatayudek (2016): "Me llama la atención sobre la muletilla 'en plan' (...) Son incapaces de decir tres frases sin poner en cada una de ellas la expresión 'en plan'".

Méndez-Orensek (2016) biltzen ditu *en plan* esapiderearen baloreak. Markatzaile honek funtzio pragmatiko-diskurtsibo desberdinak hartzen ditu, eta gazte hizkeraren, bapatekotasunaren eta ahozketasunaren bereizgarritzat jotzen du. Markatzaile honekin aldakuntza sintaktiko bat egon daiteke bidean, gazteen hizkeran urriak izaten dira hauek, nolanahi dela ere gazte hizkeran has daitezke berrikuntza hauek eta gero hizkuntza orokorrera hedatu daitezke. Bertzaldetik, ikertzaile honek biltzen duenez, emakumeen hizkeran ohikoagoa da erabilera hau gizonezkoan baino, eta zenbat eta adinean gorago izan, gutxiago erabiltzen da (Méndez-Orense 2016: 128), baina, 33 urtetik goragokoek erabili egiten zuten.

Gaztelaniaz Madrilgo nerabeen arteko elkarrizketetan funtzio ohikoena da ongi gelditzearena, adeitasuna, lehuntzaile mekanismo bezala erabiltzen da: "when used as a politeness device to save both the speaker's and the hearer's face. This function is the most frequent one in the material studied in this paper, which emerges from Corpus Oral de Lenguaje Adolescente de Madrid. (COLAM)" (Stenström & Myre Jørgensen, 2009).

Azkenean, *en plan* markatzaile pragmatiko hau, zenbaitetan balio digu denbora irabazteko zenbait testuingurutan. Azkenean, *en plan* birformulatzaile esplikatiboa da, o sea, markatzailearen funtzioa egiten ari da, adibidea emateko

erabilia, hein batean hau ordezkatzeko ari da. Eta horixe da kasu honetan agertzen dena, (*en plan bideo...*) bere balorea da "modua" adieraztea, gutxi gora beherako ideia egitea; esaldi honetan, bideo grabaketa eta antzeko prestaketa handiak egin behar izan dituztela adierazi nahi du.

Bertzaldetik, oso ohikoa da deikien erabilera: *tío*, eta baita harridura-markak ere; denak dira ahozketasunaren ezaugarri unibertsalak gazteen artekoak (cf. Zimmerman 2002: 150). Zentzu honetan, aipatzekoa da neskek elkarri izendatzeko ere hitz maskulinoak darabiltzatela: *hombre*, *tío* (azenturik gabe), *txabal*. Tusónek dioenez (1996) klitxeen eginkizuna bide dute hauek. Jørgensenen arabera, ukipenaren kontrola da markatzaileek egiten dutena:

(...) haciendo referencia a tres funciones principales, dentro de la función de controlador de contacto que pienso se pueden aplicar a *tío* y *tía*.

-Llamar la atención de alguien

-Identificar al interpelado

-Mantener y reforzar las relaciones sociales = mantener y comprobar el contacto que implican activamente al interlocutor(es) (Jørgensen 2008: 393)

Laburbilduz, alde batetik tokiko hizkeraren ezaugarriak nabarmenak dira, Sakanako hizkera kasu honetan; baina, aldi berean kode-alterantzia kasu asko agertzen dira eta baita gazteen hizketamoduaren ezaugarriak ere, adibidez *en plan* markatzailea.

8. Elkarrizketa. Azterketa garaian whatsapparen bidez

B: zmm??

A: dexente zu???

B: Dexente...? Ez dakit ba nik

A: jajajajajajaja ez naiz kexatzen
Zermouz azterketak??

B: Bnn aste hontan ez dittut gehio egin

A: zu ni baño hobe jajajajajajaja

B: asteburan joango zara herrira?

A: seguraski

Has visto lo de los dos tics urdinas?

B: bua ze kaka

Ez zait baterebaterebatere gustatzen

A: niri ezta

ze kontrola momenturo

B: kendu daiteke

Hori esan dit uxuek

Baña ez dakit nola

A: jo esango didazu nola ba

Bestela...

Afaltzera noa

Iganderarte muaaaa

B: agur pitxinn

Queasco

A: klasean nago

Kontatuko didazu

Baño oso ona jajajajajajajaja

B: ezdizutt ezer kontatu behar :’(

Azken aldia

A: ya ya...

Ikusiko ogu

Me *sigo riendo*

Muxutxobatttt kalean gelditu denarii

B: Agur.

A: muua muaaa

Iruzkina

Ortografiaren erabilerari buruz esan daiteke lehenik maiuskulen erabilera egiten dela indarra adierazi nahi denean diskurtsoan, ahozko ohiua irudikatzeko egiten dira hauek: ARAZO BAT DAUKAT, MENTIRA. Bertzaldetik, letren errepikatzea egiten da adierazkortasuna emateko *jajajajajajajajaja*, *muxutxobattt*, *itxoinnn*, *zeeee*, *muua*. Bertze batzuetan, formula modukoak erabiltzen dira: *bn* (bien).

Esperatzekoa denez, gaztelaniaren eta euskararen arteko kode-alternantzia dago: *me sigo riendo*, *no tiene gracia* edota *Mentira* edo *ojalá te pase, que asco*. Kasu hauetan, gure ustez, adierazgarritasuna adierazten dute esaldi hauek guztiek. Kontuan hartu *qué asco* espidea erabiltzen dela zerbait baztertzeko, ez zerbaitek nazka ematen dizunean. Kode-alternantziari buruz Zulaikak eta Perez Gazteluk (2016: 109) hauxe diote: “Aitor dezagun hemen aipatu bertzerik ez dugula egingo gazteek (batzuek gehiago beste batzuek apenas) adierazgarritasuna lortzeko dabilen baliabide indartsu bat; *Code-switching* (CS) edo kode-alternantzia (eta/edo *Code-mixing*, kode-nahasketa)” dela.

Bertzaldetik, kode-alternantzia gertatzen da lokailuetan eta hitz markagailuetan; adibidez, es *que* oso ohikoa da esaldiaren hasieran: *Es que* aita etorri da *1h* beranduago. Horrez gain, *1h* (Una hora) erdal sintagmaren laburtzapena da. Modu berean, *ya* erabiltzen da ahozko diskurtsoan adostasuna adierazteko (kasu honetan ezadostasuna).

Edonola ere, azkeneko agurrean erabiltzen den puntuazio markak haserrea adierazten du. Aurretik esan bezala, ez baitira ez antolatzaile ezta testua lotzeko erabiltzen diren lokailuak idazten komunikazio mota honetan. Aurretik aipatutako guztia kontuan izanik, erran daiteke bi idatzizko elkarrizketek antzeko ezaugarriak dituztela, nahiz eta testuinguru ezberdinetan kokatzen diren eta pertsona ezberdinek egiten dituzten. Bertatik argi atera daiteke euskararen eta gaztelaniaren arteko kode-alternantzia askotan gertatzen den estrategia dela, eta egoera ezberdinen aurrean, adierazgarritasuna emateko erabiltzen dela euskarako forma erabili ordez.

Elkarrizketa honetan berriz ere, nabarmendu behar da neska dela agur mai-tagarriak erabiltzen dituen: *muua* (muxua), eta *muxutxobatt*. Garcia Moutonek (2003: 150) dioenez, (cf. 8.1) emakumeak adierakorrangoak dira laguntasunean eta gortesia erabiltzean.

Antzeko ondorioetara iritsi dira Zulaika eta Perez Gaztelu "Neskek beren artean honelako deigarri, deikiak darabiltzate elkarri zuzentzeko". *Bonbonzita, guapa, (wapa, wapisima), guapi, maitia, monona*. (2016: 110). Horrez gain, beren lanaren laginean gizasemeen arteko elkarriketarik ez dutela hartu diote eta horrek izan dezakeen eragina adierazten dute. Izan ere, haiexek diotenez, hainbat atzizki eta hitz maitagarriak ez dituzla erabiltzen: "Mutil gazte batzuek ere halaxe aitortu digute. " Guk [mutilok] ez ditugu bokalak horrenbeste errepikatzen... , guk ez dugu horrela egiten... [-txo, -illa... atzizki txikigarriak izenari erantsi], guk ez ditugu hitz horiek esaten [petardi, guapi, prexioxa, potxola...]"

10. Baztango gazteak whatsapparen bidez

Elizondoko neska talde bat da hau, A Unibertsitateko ikaslea da eta bere lagunekin ari da whatsappeko elkarriketa taldean. Inguruneari dagokionez, Elizondon gertatzen da elkarriketa; lagun talde bat whatsappen bidez hizketan ari dira.

- A: Ongi gan bar naiz elizondora orai bañon erran datate ez atratzeko doneztebetetik bertzenaz... *labanen ikurrak*
- B: Bañon torko zara ez?
- A: Bai baai
- C: Ze iruditzen deitzen baldin badiogun taxi batei? Bertzela eztugu izen bar lekuik ta ganen gara arront mantxoo
- A: Ongi! Porcierto bidali didate hau: *Atsaldion itsaso! Abenduen 6an bada go bazkarie* Antxitonean bestetan lagundu duzuenendako, abisatu zure kuadrilla eta asteazkeneko abisatu zenbat zaten faborez. Ongi izen!"
- C: Neri gatatik baii, zuek erranen duzue!
- A: Yo noo
- E: Si..Vamoos Sii, bokata baj y pa las once a doneztebee
- B:Ta gero Lur- era (diskotekara) gateko asmorik bada??
- A: Baai
- C: Pos sarrerak hartu bar diree
- A: Ya bai bakitt

Iruzkina

Ortografia alorrean letren errepikapenak erabiltzen dira: *atseko, yeaah, zuekinn, oii 'hori', sii, doneztebee, baai, mantxoo, ongii, noo, vamoos, diree eta bakitt*. Puntuak erabiltzen dira idatzitakoari doinu bat emateko: *atseko??, ta oii?, eztakit utziko dataten bakarrik gaten..., zer???, zuek erranen duzue!, atsaldion Itsaso! eta gateko asmorik bada??*. Akats ortografikoak ere badaude, adibidez, *h-rik* ez da erabiltzen eta izen propioak eta izen bereziak letra txikian agertzen dira: *hoi* eta izen bereziak minuskulan idazten dira: *doneztebe, elizondora, itsaso*.. Formula batzuk hedatzen ari direnak: *x* erdal 'por'-en ordeaz, eta *-k*-ren erabilpena: *bokata*.

Bertzaldetik, Baztango hizkeraren ezaugarriak agerian daude. Fonologia arloan sinkopa dugu: *zaten* 'zareten', *pxket* 'pixka bat', laburtzapenak: *ta* 'eta', eta bokalen arteko kontsonante kenketa: *lekuik* 'lekurik', *atseko* 'arratsalderako', *aben-*

duen 'abenduarien', *bakitt* 'badakit', *pos* 'pues', *pa* 'para'. Aditz morfologian Baztango hizkeraren aditz laguntzaileak agerian daude: *datzut*, *datate* eta bertako aditz nagusiak: *gatatik* 'joaetagitik', eta amaitzeko, euskara batuaren erabilera aipatuko dugu, tokian tokiko ezaugarriak euskara batukoekin tartekatzen dira, adibidez: *didate*... Izen morfologian *-dako* morfema dugu eta lexikoan *arront* dugu, bertako aldaera.

Kode-alternantzia agertzen da esapide eginetan: *Por cierto bidali didate hau*. Horrez gain, lokailuetan ere bai: *pos* 'pues', *pa* 'para' ditugu. Bertzelako esaldi zatietan ere txandaketa dago, kasu honetan, (bokata bat hartuko dugu) eta 2. zatian gaztelaniaz, y kopulatiboarekin lotuta:

-*Sii*, bokata baj (sic) y *pa las once a doneztebee*

bi hauetan, galderak euskaraz daude, eta erantzun hauek erdaraz, joku baten antzera, kode-alternantzia egiten da.

-*yo noo* eta *sii vamoos*

11. Ostiraleko parranda prestatzen whatsapparen bidez

Whatsappen bidez egindako elkarrizketa da hau, bi lagun artekoa. NUPeko ikasleak dira, Iruñekoak, biak 18 urtekoak dira eta D ereduaren ikasi dute. Batak (Bk) Lehen Hezkuntza ikasten du eta bertzeak (Ak) Lan Harremanak. Azterketa garaian daude eta asteburua antolatzen ari dira.

A: Aupa!

B: Hombre! aspaldiko! zm?

A: Ba...beno ondo esan beharko dugu, azterketak bukatzeaz nago eta orain arte ez dira gaizki ateratu. Eta zu? zm?

B: K envidia! gaindituko duzu dudarik gabe! Ba niri ez zaizkit ain ondo joan, espero nuen baina txartoago

A: Lasai txo! oraindik geratzen da la segunda ronda, ostiralean aterako zara?

B. Bai noski! es que ez naiz etxean geratuko de rallada

A. Bihar geratu naiz Totem-eko antzizpadak hartzeko, nahi duzu?

B: Tira ba...hartu eta bihar ordainduko dizut bale? zenbat balio du? 10€ edo 12€?

A: Ondo da, 12€ uste dut, gainera con dos consumiciones!

B: Gozatzen! lo egitera noa, bihar hitz egingo dugu!

A: Bale! ondo lo, mx

Iruzkina

Ortografia arloan, hitzen murrizketak agertzen dira, bokalak desagertuz eta *k* erabiliz *qu*-ren ordez: *mx* 'muxuak', *zm* 'zer moduz', *k* 'que'. Bertzaldetik, erregistro informala nabarmena da: alde batetik makulu hitzak daude, hala nola, *gozatzen*, *hombre*. Baita ere hasierako agurra informala da: *aupa* eta interjekzioak ageri dira:

tira ba. Bertzaldetik, solaskideari egindako adostasunaren seinaleak ditugu: *bale!* *ondo da!*

Azken honetan ugaritu den esapidea da *bale*, euskaraz *b*-rekin idazten dena. Igorleak hartzaileari (hartzaileei) aurretik esandakoa onartzen duela, bat datorrela adierazteko *balee* (bokal gutxiago nahiz gehiagorekin) errepikatuta darabil; elkarriketan aurrera egiteko, elkarriketari eta komunikazioari laguntzeko modua da.

Bertzaldetik, "Es que" ren fokalizazioa eta ezkererako lokadura ohikoa da gazteen hizkeran bai erdaraz eta euskaraz ere bai: "Por otra parte, la focalización con *es que* y dislocación a la izquierda es un rasgo específico del estilo oral castellano. El proscribir la manera con *es que* en el lenguaje escrito es un hecho histórico basado en criterios estilísticos" (Zimmermann, 2002: 150) (Ibarra 2011: 136).

Badira hiztun batzuk nahiago dutenak markatzaile hauek erabiltzea, eta horiek soilik nagusitzen dira beren elkarriketan. Hari honetatik jarraituz, Lanttok (2015: 754), dioenez badira kode-alternantziaren eredu finkatuak, *conventionalized code-switching* (Muysken, 2000tik hartutako terminoa) osatzen dutena; alegia, komunitate bateko hiztunek onartzen eta partekatzen duten elementu eta egitura multzoa da. Eta gazteen arteko diskurtsoan modu egonkorrean entzuten dira gisa honetakoak: *bale*, *bueno*, *eske*, *hombre*, *en plan*. Hauek erregulartasunean agertzen dira eta egitura egonkortua erakusten dute.

Esaten genuenez, kode-alternantziari dagokionez, esapide eginetan sortzen da: *hombre*, *bale*, *k envidia*. Eta bertze kasu batzuetan, preposizio batekin edo artikulatu batekin hasten dira kode-alternantziak: *la...*, *con*, *de*: *la segunda ronda*; *con dos consumiciones*; *de rallada*. Hain zuzen ere esaldiaren 2. zatian gaztelania izateak ematen du prozedura ohiko bat kode-alternantzia izateko; kasu haueetan 2. hizkuntzari egindako jauzia errazago egiten da preposizio batekin doanean edo esapide egina duenean, adibidez, "de rallada"-ren kasuan.

Euskara batua-euskalkiei dagokienez, ikusten da *ondo* aldaera erabiltzen dela Nafarroan. Bi hiztunek darabilte hitz hau; honek adierazten du hizkeren nahasketa dagoela, edo aldaera geografiko batzuk (*ondo*) orain orokortu direla eremu osoan.

12. Baztango gazteak whatsapparen bidez hizketan

Ingurunea Baztan da; Baztango bi neska gelditzen dira erosketak egiteko. A: Elizondarra, 18 urteko neska. B: Irungoa, 18 urteko neska, guraso baztandarrak dituena. Euskaraz aritzen dira etxean eta ikasketak ere euskaraz burutu dituzte; hala ere, bi hizkuntzetan aritzen dira lagun-taldeekin eta baita bizitzaren bertze arloetan ere.

B: Joan bar gara orai kamixetak eroستeraa, nahi baduzu torri orai Intzara.

A: Oraain?? Prestaatu gaabe nago..jajajaj Esperatu hiru minutotan faborez! Gelditzn gara ta 25etan bbva?

B: Joee ni atra naiz orain ya. esq errandugu lehen...bñon gan bar gara nerea ta ni bakarrik

A: Falta zait bakarrik plantxatzia iliaa! Ueno puntaak, orduen erosteen al nauzu?? Ta geero ganen naiz! Ta mango datzut dirue eeh! Ingo naaz titaa.... (geroago)

B: Nunzaude Maialen?? Gu Goizalden (taberna) parian. Bakarrik zaude edo hauekin?

A: Plazaraat gaten! Baai bakarrik nago, galdu tut denak jajaj badire orai muxikuak.

B: Ongii erosi dut zure kamixeta yaa

A: Ongi milesker! lasaai gero manen datazue! Frontonan nago, bueno kanpuan.

B: Balee heldu naiz

Iruzkina

Ortografia aldetik, hitzak mozteko joera dago eta horrela, laburtzapenak agertzen dira: *gelditzn* 'gelditzen', *ta* 'eta', *esq* 'es que', *bñon* 'bañon/baina', *ueno* 'bueno', *mango* 'emango', *pxket* 'pixka bat', *pos* 'pues'. Laburtzapenak idazterakoan, silabarenak, deklinabidekoak eta bertze batzuk daude: *ta* 'eta', *abenduen* 'abendua-ren', *pos* 'pues', *pa* 'para'.

Bertzaldetik, hainbat hitzen letrak errepikatzen dira, batzuetan entonazioa ordezkatzeko eta laguntasuna bilatu nahian: *baai*, *ongii*, *joe*, *eeh*; bertzeetan, idazteko ardura falta izan daiteke arrazoiak: *erosteraa*, *prestaatu gaabe*, *iliaa*, *puntaak*, *erosteen*, *plazaraat*... Horrez gain, batzuetan hitzak elkartuak idazteko joera dago: *errandugu* eta *nunzaude*?

Elkarrizketa honetan kode-alternantzia gertatzen da markadoreetan, jadanik lexikalizatuak daudenak: *ya*, *esq* 'es que', *ueno* 'bueno', *balee* 'vale', baina ez dago kode-alternantzia gehiagorik. Markatzaile hauek solaskidearen arreta bereganatzeko sartzten dira, haren onarpena, erantzuna edo iritzia lortzeko; bestela esanda, elkarrizketa zabalik mantentzeko.

Bertzaldetik, ahozko gazte hizkeraren esamoldeak agertzen dira: *Ingo naaz titaa...* (Segituan egingo dut). Emozioak deskribatzeko erabiltzen dira bertze prozedura batzuk: harridura ikurrak (!!) eta galdera ikurrak, errepikatuak (??): *Ora-ain??, Esperatu hiru minutotan faborez!, Prestaatu gaabe nago..., ni atra naiz orain ya.. esq errandugu lehen.., erosteen al nauzu?? Ta geero ganen naiz! Ta mango datzut dirue eeh! Ingo naaz titaa...., Nunzaude Maialen??, ongii milesker!* Irriparra adierazteko 'jajajaj' idazten da, nahiz eta gazteek badakiten euskara akademikoan 'kar kar kar' proposatzen dela. Gaurko gazteek 'jajaja' (gaztelaniaz eta euskara) edo 'hahaha' (ingelesez) idatzi ohi dute, adib.: *Prestaatu gaabe nago...jajajaj, galdu tut denak jajaj.*

Bueno eta *esq* makulu-hitzez paper leungarria egiten dute, hainbat argudio kontzesibo sartzten dituzte, justifikazioa eta birformulatzea adierazten dutenak. Horregatik, konektore hauek askotan balio modalizatzailea leuntzeko joera adierazten dute, eta, horrekin oposaketa gutxitzen dute, ñabardurak sartzten dituzte eta hitzen bat argitzen dute. Bertzaldetik, deklinazio morfemarik gabe agertzen dira hainbat hitz: *Gelditzn gara ta 25etan bbva?*

Esperatzekoa denez, Baztango hizkeraren berezko ezaugarri fonetikoak eta morfologikoak agertzen dira. Kasu honetan testua Baztango euskaraz idatzia dago. Lehenik eta behin kontsonanteen galera dugu bokal artean: *hoi* 'hori', sinkopa: *atra* 'atera', monoptongaketa: *bar* 'behar', eta goranzko diptongoa *-ea > -ia*: *Plan-txatzia, ilia*. Morfologian, *-rat* morfema dugu: *plazarat gaten*, eta *-on* bukaera, gaztelaniazko *-on*-ez bukatutako hitzetan: *frontonan*. Lexikoan bertako aldaerak nagusi dira: *arron* 'arrunt', *gan* 'joan', *esperatu*, *faborez*, *orai*. Aditz morfologian ere bai, nork-nori-nor sailean: *datate* 'didate', *datazu* 'didazu', *mango datzut* 'dizut', pluralgileetan: *galdu tut* 'ditut', *izan* aditzean: *badire* 'badira' eta bertzelakoetan: *heldu naiz* eta *gaten ahal naiz* ahaleran *-ten ahal* egiturarekin. Nork-nor aditz laguntzailea erabiltzen da: *erosten al nauzu*.

Baina hau ez da sistematikoa; adibidez, Salaburuk & Lakarrek (2005: 141) diotenez, baztaneraz *behar* aditzarekin bi aditz laguntzaileak erabiltzen dira (*dut* eta *naiz*), baina, gailendu dena orain arte *dut* izan da. Gaur egun, ordea, gazteen artean, poliki-poliki Nor sailekoak nagusitzen ari dira, Iñigok (2007) dioen bezala. Hori dela eta, gure elkarrizketan bi aldiz *joan bar gara* eta *gan bar gara* agertzen dira. Gisa berean, *-go* etorkizuneko morfema erabiltzen da: *mango datazu*, *ingo naz*; baztaneraz, ordea, arruntagoa da edo zen *-en* eremu guztian, alegia: *emanen*, *eginen* (Salaburu & Lakar, 2005: 145). Honekin adierazi nahi dugu ezaugarri batzuetan euskara estandarizatu baten joera agerian gelditzen ari dela, euskara batuak eragina duela; izan ere, gazte hauek "batuan" hazi dira eta nolabaiteko "dialect levelling" dagoela ikusten da. Bertze euskalkietan ere gertatu dena, Aurrekoetxeak (2006) adierazten duen bezala.

Erran bezala, euskara batuaren formak eta euskalkiarenak txandaketan agertzen dira: *didate* eta *dago* (ik. 14.1). Horrela dio Amonarrizek: "Batua eta euskalkia nahasten dira. Eta euskalkirik hitz egiten ez den inguruetan, norberak gertuen sentitzen duen edo gehien ezagutzen duen euskalkiaz baliatzeko joera ari da zabaltzen" (Amonarriz 2008: 170). Zentzu honetan, gaurko gazteek *ba-* baiezkoren gehiegizko erabilpena egiten dute: *badire orai muxikuak* (orain muxikuak daude).

13. Iruñeko gazte baten whatsappak olentzero eguneko bazkaria antolatzen

Ondoren datozen elkarrizketak Iruñeko talde baten whatsappak dira, denak ikas-toletan eta D ereduan ikasiak dira. Testuingurua: Olentzero eguneko bazkaria antolatzen ari dira. (Whatsapp bidez). Hauek dira partehartzaileak: A, 20 urteko neska, ikasketak euskaraz eginak, baina, etxean euskararik ez du egiten (Ledea, Nafarrokoa). B, 18 urteko mutila, euskaraz ikasia, etxean euskara ez duena erabiltzen. (Sakanakoa). C, 20 urteko mutila, Lizarra ondokoa da, ikasketak euskaraz egin ditu, anaiak euskara badakite baina ez dute hitzik egiten.

A: ordaindu behar da gaur afariaren dirua? Eta janaria ere gaur eraman behar da?

B: Bai

A: Ongi

C: Dirua gaur pribu eta platerrak erosteko. Baita sozietateko sukaldea ordaintzeko.

Bakoitzak Esar dezala gutxienez 2 arrautz 3 patata eta 2 solomo/txuleta/jamon....Norbait zerbait gehiago nahi badu ke traiga.

Diruarekin ke kompro?? Sidra patxaran kalimotxo..??

Kreo k no hace falta nada mas x decir

A: bai baserritarrez jantzita!!

B: A mi pa beber me da iwal, nai duzuen.

C: Hartzen ditut hirurak pues

Sobratzen bada pa la noxe y fuera

A: y donde komemos?

C: Artzen ditugu aulki batzuk de la soziedad eta kanpoan.

A: OK

Iruzkina

Bistan denez, aldaera estandarra, alegia euskara batua erabiltzen dute gazte hauek, ez dago bokal asimilaziorik ezta kontsonante kenketarik ere. Ortografian 'x' erabiltzen da gaztelaniazko *por* ordezkatzeko: *por decir* 'x decir' ikur matematiko bezala eta 'ch'-ren orde: *noxe* 'noche'. Eta 'z', agertzen da 'c'-ren tokian: *soziedad*. Halaber, 'w' agertzen da 'gu'-ren orde: *iwál* 'igual' eta 'k', 'qu' eta 'c'-ren orde: *ke*, *komemos*. Puntuazio aldetik, bakarrik galdera ikurrak agertzen dira.

Lexikoa alorrean, gazteen erdal argotaren hitzak ditugu: *pribu* 'edaria' (b-rekin idatzia).

Kode-alternantzia eruz agertzen da, eta eredu bat segitzen du: esaldi nagusian euskaraz dago baldintzako protasian eta apodasian, ordea, erdaraz:

-Norbait zerbait gehiago nahi badu *ke traiga*.

-Sobratzen bada *pa la noxe y fuera*.

Prozedura bera gertatzen da hurrengo esaldietan, jauzia gertatzen da preposizioaren edo konjuntzioaren aurretik: *–de la sociedad, ke kompro??*. Kasu haueetan ez da egiten adierazkortasuna emateko, joku baten antzekoa da, non euskara eta gaztelania txandakatzen diren, adib: – Artzen ditugu aulki batzuk *de la sociedad*. Kode-alternantziaren alderdi ludiko hori nabarmenki orokortu da sare sozialerako erabileran (Androtsopoulos, 2014 & Zhang, 2015).

14. Entrenatzera joan aurretik

Testuingurua hau da, entrenatzera joan aurretiko momentuko hiru mutilen arteko elkarizketa whatsapparen bidez. A: 18 urtekoa, Arrotxapea auzokoa da, etxean euskaraz ez du egiten, baina D ereduan hezi da. B: 17 urtekoa, Aurizperrikoa da, etxean euskaraz egiten duena. C: 19 urtekoa, Iruñekoa, etxean ez du euskaraz egiten. D: 21 urtekoa da, Burlatakoa, etxean ez du normalean euskaraz egiten.

- A: vais a ir con takos oi?
B: Ezz, esqe ditut eskuak gaizki todavía
C: Nor joango gara gaur?
D: Ni gaur ez ostegunean bai
 Ke ando de examenes y trabajos y asi.
B: Ni joango naiz baina takorik gabe ke tengo k hacer manos
C: Pues takorik gabe orduan ez?
B: Llevas la pelotika esa no?
B: Baibai la llevo
 Como kedamos??
C: 7:30 Dia beti bezala

Iruzkina

Hurrengo elkarrizketa hauetan argi ikusten da gazte hauen artean gaztelaniaz egiteko ohitura. Iruñekoak dira gazte gehienak, eta nahiz eta euskaraz ikasi duten, beren ohitura nagusia kalean erdaraz egitea da. Bertzaldetik, duten balioa da bat-batekotasuna islatzea.

Ortografian laburtzapenak daude eta aurreko testuetan ikusi bezala, gaztelaniaz idazterakoan *-k* grafemaren erabilpena, *qu-* eta *c-*ren ordeztu egiten da: *komo*, *ke*, *kedamos*, *pelotika* eta, bertzaldetik, ez dago *h-*rik: *oi 'hoy'*.

Kode-alternantziak eredu jakina segitzen du, esaldi nagusia euskaraz eta menpekoea erdaraz *que*-rekin lotura:

-baina takorik gabe *ke tengo k hacer manos*

-Ni gaur ez ostegunean bai...*ke ando de examenes y trabajos y asi*.

Zulaikak ere bi esaldien arteko txandaketa aztertzen du eta hauxe ikusten du: "Mendeko perpaus txertatuen artean, osagarriak, kausazkoak, baldintzazkoak eta erlatibozkoak gailentzen dira. Maiztasun handiagokoak dira, bereziki, aurretik gaztelaniako *que* duten perpaus osagarri txertatuak" (Zulaika 2019; 12).

Edo koordinatuaren bigarren partea erdaraz dago: *bai bai la llevo*. Edo gertatzen da, batek euskaraz galderak egin eta bertzeak erdaraz erantzun. *Es que...* aren erabilpena esaldiaren hasieran egiten da: "es que ditut eskuak gaizki..." (2. elkarrizketa).

Elipsiaren erabilera ohikoa da gazteen elkarrizketan, ulermena bilatzen da, baina, modu labur eta ekonomikoan. Esaterako, kasu hauetan ez dago deklinabide markarik: *7:30 [etan]*, *Dia[n] beti bezala*. Non-en eta orduaren deklinabide morfemarik ez da agertzen. Bukatzeko nabarmendu behar da ergatiboaren falta: "Nor-bait(ek) zerbait gehiago nahi badu...".

15. Afaltzera joan aurretik

A hitzuna 18 urteko mutil gaztea da, Iruñekoak, etxean euskaraz ez du egiten. B Unibertsitateko ikaslea da, mutila, lehen mailakoa, euskaraz ikasi duena ikastetxean, etxean guti mintzatzen da.

- B: joango gara alfinal edo zer.
A: Bai esan dit mikel k kuando baja de iruñā nos lleva
B: le ba akostar mucho o qe
A: ezdakit
Baina afaldu gabe nago y kon biende hambre.
B: Gu berdin
Deitu a mikel aer zer esaten duen
A: ya egin dut pero no kontesta
(10 minutu geroago) (...)
A: Esan dit ailegatuko dela beranduago
B: Bien
A: joango gara beste egun batean.

Iruzkina

Ortografian, x– ikurraren erabilera erdal ‘por’ ordezkatzeko; *xk* ‘porque’ eta *h–* gramemaren falta: *ai* ‘hay’ eta *k*-ren erabilera *c*-ren ordezkari: *k* ‘kontesta’, *kunde* ‘cunde’, *kon* ‘con’ edo batzuetan *q* (que). Bertzaldetik, *v* eta *b*-ren arteko nahasketa dago, *que* –ren ordezkari *qe* eta espaziorik gabe idazten da: *le ba akostar mucho o qe...* Bertzaldetik, argi dago ez dagoela inolako puntuazio markarik, ez puntu ezta komarik ere.

Elkarrizketa honetan hainbatetan kode-alternantziak ikus daitezke euskara-ren eta gaztelaniaren artean; kasu hauetan gertatzen da menpeko esaldian, eta partikula baten ondoren; hain zuzen ere: *que*, *xk*, *pero*, *y*, *a...* preposizioen eta konjuntzioen ondoren egiten dute kode-alternantzia.

- Bai esan dit mikel *k kuando baja de iruñā nos lleva*
- Ya egin dut *pero no kontesta*
- Afaldu gabe nago *y kon biende hambre*.
- Deitu *a mikel*.

Bertzaldetik, inbertsonaltasuna adierazten da esaldi hauetan:

- Joan etxera *xk no kunde esperar mas y ai biende ambre*

Bi esaldi hauetan ez da pertsonalizazioa erakusten eta nolabaiteko urruntasuna agertzen da, hau da gazteen hizkeraren ohiko prozedura. Kasu batean ize-nordea desagertzen da (*no me cunde*) eta bertzean, *haber* aditza 3. pertsonan: *ai biende ambre*. Esaldi honetan, nolabaiteko beharra adierazten da, baina, ez dago bere borondatearen menpe, forma pertsonala erabili beharrean (*tengo bien de hambre*). Bertzaldetik, *bien de*, kantitateko izenordearen ordezkari erabiltzen da, eta *muy*-ren kidea da.


Elkarrizketa huetan ikusten da bien arteko txandaketa ohikoa dela, eta hurrenkera hau segitzen duela: euskaraz hasi eta gaztelaniaz bukatu.

Komunikatzeko bi moduetan idatzitakoa eta ahoskatua elkartzeko joera dago. Horrela, informatikako baliabideak idatziak diren arren, ahosko hizkera

errealak imitatzen saiatzen dira, horregatik askok deitzen diete "ciberhizketa" edo "ahozkotasun idatzia" (Gómez Torrego, 2001). Sare sozialetan parte hartzen ari zarenean, igortzen den mezua hauxe da: "egon lasai gramatika eta ortografiarekin". Akatsek ez dute garrantzirik, pribatasunean geldituko baitira. Baina, bertzeek zutaz duten ideia adierazten dute, alegia, zure nortasun birtualaren irudia egingo dute.

16. Iruñeko neskak asteburua prestatzen

Hau da Iruñeko 18 urteko bi neskaren arteko whatsapp elkarrizketa bat. Normalean, biek erdaraz hitz egiten dute, baina noizbehinka euskaraz hitz egitea eraba-



kitzen dute, bereziki ez ahazteko, haiek diotenez. Ostiralean azterketak bukatzen dituzte, eta parrandan ateratzeko gogoia dutela islatzen da lehenengo elkarriketan. Bigarren elkarriketan, aldiz, gaia da unibertsitatetik etxera nola itzuli. Elkarriketak nahiko motzak dira, baina egun berekoak, beraz, argi dago whatsapparen bidez asko mintzatzen direla.

Iruzkina

Hasteko, eskuineko partaideak “kaixoooo” luze batez agurtzen du ezkerreko partaidea; honek poztasuna edo bertzearen atentzioa deitzeko “o” letra luzatzen du; “kaixo” oso arrunta geratzen baita lagunen artean ere. Ezkerreko partaideak aldiz, “kaixo” motz bat bidaltzen du, baina “polita” hitzaz lagunduta (horrek hurbiltasuna transmititzen du).

Bertzaldetik, aipatzekoa da, “tu” horren erabilpena deiki bezala; azken boladan gazteek asko erabiltzen duten makulu hitza da eta “pues” hitzarekin berdin gertatzen da; ‘ah vale’ eta ‘bueno eske’. Gisa berean, ohikoa denez laburtzapenak ageri dira: *mese* (mesedez). Antzeman dezakegun bertze elementu bat emotikonoak dira; elkarriketa guztian zehar erabiltzen dira. Askotan, zerbaiten doinua edo intentzioa ulertzeko oso erabilgarriak suertatzen zaizkie gazteei bereziki. (Adib.: tximutxoa: ostiralean ateratzeko gogo bizia duela adierazten du; urduritasuna).

Kode-alternantziari dagokionez, gaztelania-euskaraz txandaketaz gain, ingelesezko *cool* eta *okeyyy* hitzak ditugu. Lehenengo horrek, jatorri ingelesa du, afro-amerikako musikarekin du lotura eta bere erranahia da zerbait erakargarria, ona. Gisa berean, *guachii* dugu, *guay* hitzaren desitxuratzea, gazteen ohiko prozedura da hau. *Guai* hitzak *ederki*, oso *ongi*-ren esanahia du. Jakina denez, gazteen hizkerak bere ezaugarri berezkoak ditu, aldakorrak direnak eta ez dutenak asko irauten. Aldakuntza hauek denbora guti irauten dute eta bertze hitz berri batzuk indarrean jartzen direnean, ordezkatuak izaten dira.

Euskaraz hitz egiteko ahalegina ikusten da, baina makulu hitzen erabilera saihestezina egiten zaie, ikasleak berak dioenez.

Hitz maitagarriak erabiltzen dituzte bi nesken artean, bai agurtzeko: *polita*, eta bai bukaera adierazteko ere: *presxioxa* eta ezpainen emotikonoak, muxuak adieraziz. XD ren erranahia da irribarrea adieraztea, X letrak adierazten du begiak itxita daukala eta D letrak, ahoa irekita erabat. Kontua da batzuetan irribarrea egin ordez, XD erraten dutela, horrek adierazten du batzuetan sare sozialetako hizkera nagusitzen dela.

Euskalkiaren ezaugarrien nahasketa ere begi bistan dago, alegia, *oraindikan* eta *ondo* aldaerak erabiltzen dituzte Iruñeko neska hauek.

17. Elkarriketa. Lehengusuen artean jai bat prestatzen

Testu hau, lehengusina batzuen artean emailaz izandako elkarriketa batetik aterata dago, hain zuzen 2011n prestatu zuten ezkongabe jai batetik. Jai honetan sorpresa bat egin zioten ezkontzen zen lehengusinari. Ikus daitekeenez, era informal batean idatzita dago eta Bortzirietako hizkera erabiltzen da gehienetan, hor-

koak baitira. Elkarriketaren xedea da lehengusu-lehengusina guztiak ados jartzea ezkongabe jaiari data bat emateko.

A: lepeeee!!! Azkenean apuntatuko zarete hauen festara? Nor gehiago apuntatuko da?

B: Ni re apuntzen naiz! Asteburu hortan do aurrekun libre naoo, ta hurrengotan eztut uste...

C: Bueno nik uste uain arteko korreukin klaro daola 11n in bar dela, biño denana eztao. Baten batek ezin do?? Ta Rotxapeako bestak direla ta baldin badakigu, elegante! Leku gehiotan re zanen dire biño hor re haitz ongi ta A re han egonen da hola.

Berari re lehen biño lehen erratea hobena, asteburuk okupatzen ai zaizkio ta! Ta sorpresa do katxondeo pixkot izaskunenan bezala ongi eonen zen biño eztaikit... Berriz hola engaintzen badugu ta sospetxatuko do, ta despedidan eguna ezin zaio gezurra erran ze bertze asteburutan ezin zanen zun ekañan benpin, ta bertze zerbatteko konprometittuko da iual hor....

Beretzat sorpresa haundia zanen dena da Amaia ta Victor kustia! Hori bai itten al da, zuk Amaia erran berandugo bertze egun batin aietuko zaitela ta gero despedidara aertu! jeje. Ongi eonen zen...

D: Bueno ba aber 11n bertzik posible zuen!! erranen zue! Asteburu ona pasa!!!

Iruzkina

Elkarriketa honetan Bortzirietako hizkeraren ezaugarriak garbi islatzen dira. Hona batzuk: kontsonanteen sandhian, ez gehi *-d-z* hasitako elkarketetan *-t* dugu: *eztao*, *eztut*. Kontsonanteen kenketari dagokionez, sinkopa nagusitzen da: *engaintzen*, *zatela* 'zareta', *benpin*, eta hitz hasieran bokalen aferesia: *re* (ere). Bokalen aferesia Bortzirietako ohiko prozedura da: *kustia* 'ikustea', *zanen* 'izanen', *re* 'ere', *do* 'edo'. Bokalen arteko kontsonanteen galera, *-g-*, *-r-* eta *-b-*: *hobena* 'hoberena', *aertu* 'agertu', *eonen* 'egonen', *pixkot* 'pixka bat', *iual*, *ai* 'ari', *aitz* 'agit', *uain* 'orain'. Bustiduraren erabilera *-tt-* grafeman agertzen da, horixe da bustiduraren adierazgarri bokalerdia edo *i* bokal osaren ondoren: *zerbatteko*, *konprometittuko*, *itten*. Baina, *-ll-*ren ahoskera nola ahoskatzen den suma daiteke, izan ere, ez da *-ll-* grafemarik agertzen: *aietuko* 'allegatuko'.

Deklinabide alorrean monoptongaketak silabaren mugan suertatzen dira, kasu inesiboan *-u* bokalean bukaturikoetan *-uan* *->-un*: *aurrekun*, eta *-uak* *>-uk*: *asteburuk*, *bertzik* 'bertzeak', eta *-e* bokalean bukaturikoetan ere: *-ean* *>-in*: *batin*. Lexikoari dagokionez, gaztelaniatik etorritako hitz asko erabiltzen dira, hain zuen ere euskaldun zahar diren gazte hauengan badirudi konplexurik gabe erabiltzen dela hau: *katxondeo*, *elegante*, *despedida*, *klaro*, *sospetxatu*, *engaintzen*..., bertzaldetik, horietako batzuk nahiko hitz orokortuak dira. Gehiengoak dira hitzen egokitzapenak, gaztelaniatik euskarara egokitzen dira *-du* edo *-tu* gaineratuz. Zaila da erratea kode-alternantzia edo maileguak diren. Ikertzaile batzuek kasu aparte bezala kontsideratzen dute (Fernández Ulloa: 2004).

Aditz morfologikoan, ahaleraren erabileran *–ten ahal* egitura dugu, goinafarreran eremu handian eta Bortzirietako hizkeran egiten dena: *itten al da*. Gisa berean, bertako aditz laguntzaileak agertzen dira: *do* 'du', *zue* 'duzue'.

18. Ondorioak

Hiru alor azpimarratuko ditugu ondorio hauetan: a. Kode-alternantzia, b. Hizkuntza-egokitzea c. Euskara batua/euskalkien arteko harremana.

Lehenik erranen dugu txatetako elkarrizketetan ikusten dela ez dagoela kontraste zorrotzik ahozko diskurtsoaren eta idatzitakoaren artean, aldiz, aurkitzen duguna hau da: idatzitako mezu ahoskatuak 'escritos oralizados', gaztelaniaz erraten den bezala edo "testu mintzidatziak.

Esperatzekoa denez, komunikazioa idatzia izateak ekartzen ditu berrikuntza tipografiko ugari, ahotsa ordezkatzeko xedearekin egiten direnak. Horrez gain, badira bertze ezaugarri komun batzuk: laburtzapenak, siglak, bokalen galera, puntuazio eta azentuaketaren falta, horiek guztiak agertzen dira txatetako komunikazioan, idazkera kanonikoan agertzen ez direnak. Horrez gain, adierazgarritasuna lortzeko, kode-alternantziaren gain, letren errepikapena izaten da prozedura ohikoa: txatgileek oso maiz jotzen dute baliabide hauetara adierazgarritasuna kanporatzeko. Gehienetan igorlearen emozioen eta barrengo egoeraren adierazpenak dira: *pasaaaaa, baibaiii, ikusiarteee...* Tusonek (1996) dionez, erabiltzen diren esapide horiek harremanak egiteko osagaiak dira, oinarritzko bitartekoak belaualdi berekoen artean taldearen sintonia antolatzeko. Gainera, hitz batzuen bukaeran, hitzaren erranahia goxatzeko igurzari sabaiaurreko ahoskabea [x] eransten diote batzuetan: *Aguxtooo*. Laburbilduz, ahozkoan oinarritutako hizkera sortzen ari da.

Bertzaldetik, gure azterketaren ondorioz, erran dezakegu euskal gazteen txatetan sortzen den kode alternantziaren tipologiak ahozko eremuko kode-alternantziaren ereduak segitzen dituela. Zulaikak ere (2019) antzeko ondorioetara heltzen da. Erran bezala, kode-alternantziaren eredu zehatz batzuk errepikatzen dira, eta horrez gain, honek funtzio zehatz batzuk betetzen ditu. Argi dago kode-alternantzia dela erabilitako prozedura ohiko bat funtzio hauek betetzen dituen: umorea ematea, esaldi eginak sartzea, konplizitatea adieraztea eta azkenik, alde ludikoa azpimarratzeko sortzen da. Bertzaldetik, nabarmena da gazteek erdal jargoia osatzen duten hainbat makulu hitz erabiltzen dutela. Alegia, testu hauetan euskara denean oinarritzko hizkuntza, KA erabiltzen da, bertzeak bertze, hitz zakarren bat edo biraoren bat txertatu nahi dutenean. Hori dela eta, biraok askotan erdaraz aurkitzen ditugu. Gure ustez, KA ez da gaitasun urriko hiztunak komunikatzeko darabilen baliabideetako bat, alderantzizkoa baizik: berariaz moldatutako estrategiatzat jo daiteke.

Funtzio sortailea eta ludikoa badira ere, benetan gailentzen dena da funtzio komunikatiboa, bazter utzirik garbitasun sintaktikoa eta ortografikoa. Funtzio hauek eta alor honetan ikertu duten bertze ikertzaileek diotena bateratsu datoz:

"Modu klasikoan esanda (Buhler, Jakobson), txatgileek jolas-solasean darabilten hizkuntza batik bat funtzio adierazkorra, espresiboa (igorle den Nlaren, agerbide berariazkoa),

funtzio konatibo edo deitze funtzioa (hartzaile den solaslagunari dei egitekoa, hurko horrengan eragin nahi izatekoa) eta fatikoa (bitartekoa, ukibidea zabalik dagoela adieraztekoa) betetzen dituela darabilte" (Perez Gaztelu & Zulaika 2016, 107).

Horrez gain, mutilen artean agurtzeko: *epaa*, *zmz*? *Aspaldikoo* agurrak erabiltzen dira, eta nesken artean, ordea, agur maitagarriak nagusitzen dira maiz: *muaa* (muxua), eta *muxutxobatt*, *polita*, *prexioxa*. Ezaugarri hauek guztiek osatzen dute gazteen komunikazio modu hau; laburbilduz, erran dezakegu denek osatzen dutela 'cool' estilo bat, ezaugarri hauek guztiak biltzen dituena. Horrez gain, erdal sintaxiaren kalkoak ugari dira: *nik gaindituta dakadala*.

Kode-alternantziaren tipologiaren sailkapena ez da bereziki aztertu lerro hauetan, baina, jakina denez, hiru motakoa da: KA enblematikoa, KA perpaus barnekoa eta azkenik, KA perpausen artekoa. Gure azterketaren ondorioz, ikusten dugu gure laneko kode-alternantzia motak batera datozela Amonarrizek (2008: 176) eta Ibarrek (2011, 2013, 2015) aurreko lanetan aipatzen dituztenekin; nahiz eta haiek ahozko jarduna aztertu duten; Zulaikak ere (2019) ingurune sintaktikoren arabera hiru tipologia hauek aztertzen ditu, haren arabera, KA enblematikoa da maizenik erabiltzen dena. Gure lanean dentsitate handiena erakusten duten kode-alternantziak honako hauek dira: agurrak, esaldi amaierak, adierazkortasuna adierazteko argota, ingeles terminologia eta erdarazko maileguak euskaraz eman ohi dituztenak.

Laburbildurik hauek dira agertzen diren kode-alternantzia motak:

- Lokailuak: *eske*, *sikiera*, *bale*, *porke*, *tio*, *en plan*...
- Lexikoa: erdaratik egokitutako izenak eta aditzak, ahozko erabileran onartuak direnak: *txibatu*, *rollo*, *erreboluzioa*, *karrerille*, *juerga*, *porkeyek*.
- Ingeles maileguak: *no problem*, *guay*, *cool*.
- Gaztelaniazko hitzak, dierazkortasuna indartzeko argota: *dpm*, *kojonudo*.
- Esaldien arteko kode alternantzia. Eredu honen barnean ohiko egitura bat haxe da: lehen perpausa euskaraz, bigarren perpausa erdaraz preposizioekin eta juntagailuekin lotua, Adib. – Proposatu planen bat *que mi respuesta será sí*. Edo baldintzako esaldian, protasia euskaraz eta apodasia erdaraz. Perpausen arteko KA aztertutako beste lanetan ere, ohikoa izaten da osagai txertatua esaldiaren bukaeran agertzea (Aurrekoetxea & Unamuno, 2011; 26, Ibarra, 2013: 126).

b. Hizkuntza– egokitzeaz den bezainbatean, argi ikusten da gazte batzuek erabiltzen dituztela beren tokikoak ez diren hizkeraren ezaugarri batzuk.

Izan ere faktore interpersonalek eta taldean sortzen direnek eramaten dute hizkuntza aldaerak egokitzea, bertez gazteen interakzioan gertatzen denean. Hori dela eta, Portugaletako batek erabil ditzake erdialdeko edo gipuzkerazko aditz formak: *dakat* eta *deu*. Eta Iruñeko gazte batek *berbetan*, *ondo*, *jun* aldaerak erabiltzen ditu Bizkaiakoa den lagunarekin elkartuago egoteko, elkarriketatzaileari hurbiltzeko; konbergentzia azpimarratuz. Antzeko zerbait azpimarratzen du Amonarrizek, haren ustez, berteen hizkerari hurbiltzeko modu bat da hau; adibidez, Berastegiko (Gipuzkoako) gazteak Tolosara joaten direnean beren hizkera egokitu,

okertu eta pobretu egiten dute, kalekumeen talde hizkerara egokitze (Amonarritz 2008, 175).

Horrek adierazten du hizkeren ezaugarriak ez direla bakarrik delako tokian agertzen, eta “hizkuntza-egokitzea” rengatik tokian tokiko ezaugarriak eremu zabalxago batean erabiliak ager daitezkeela. Egokitze hau aldatzen doa poliki-poliki hiztunen interesen arabera. Horrela, hiztunen artean interakzioa egiten dute al-dioro, eta “identitate aldakorra” izan daitekeena erakusten dute hiztun hauek.

c. Azkenik, *euskaldun zaharra-euskalkia* vs. *Euskaldunberria-batua* loturen haustura ez dela hain zorrotza nabarmen gelditu da hemen ere. Txat hauetan oinarrituz saiatuko gara ondorioztatzen tipologia nagusiak euskararekiko, euskara batua/euskalkiak dikotomia nola txertatzen den ikusteko.

Lehenik erran ez dagoela gazte hizkera bakarra. Badira batzuk (gutxienak, batu-batuan aritzen direnak eta hizkera akademikotik hurbil daudenak). Aldiz, zenbait gazteren hizketan (adib. Gemikakoa, Etxarrikoa, Baztangoak) hizkera dialektalaren ezaugarriak oso nabarmenak dira eta hori agertzen da whatsappetan eta on line idazkeraren bidez.

Hauek dira tipologia nagusienak euskara batua/euskalkiak dikotomiari buruz. Euskara batuan egiten dutenak; Iruñeko gazte batzuen whatsappetan ageri da, hizkera hau estandarretik oso hurbil kokatzen da. Hala ere, gazteek duten berte euskalkien ezagutza eta berte hizkerekin ukipena kontuan hartzen badugu, Iruñeko gazte batek erabil ditzake *hobeto* edo *ondo* aldaerak. Erran bezala, nahiz eta tokiko hizkera berezirik ez izan Iruñean, berte lagunen hizkeraren hainbat ezaugarri erabiltzen dituzte. Aldi berean, euskalkiak azpimarratzeko joeraz gain, nolabaiteko “dialect levelling” dago hizkeren artean, estandarizatze bat. Erran dezakegu hizkeren ezaugarriak lausotzen ari direla. Adibidez, *ondo* eta horrelakoak zabaltzen ari dira Iruñeko gazteen artean *ongi*-ren orde. Horientzat *ondo* sinonimo bat da, azken batean, gazte horientzat euskalkiak ez dira arrotzak.

Euskalkietarako joera daukatenak; klean hitz egiten den bezala idazten dutenak beren herriko aldaera fonetiko eta morfologikoak erabiltzen dituztenak (ik. 7, Etxarri Aranazko neska). Horiek aukeratzen dituzte erdarazko hitzak euskarari egokituak, adibidez: *porkeye* eta ez *zerrikeria*. Hitz horiek jatorriasuna ematen diete eta, aldi beran, euskalkien balio positiboa azpimarratzeko bide bat da hau, euskalkiak benetagoztat jotzen direlako.

Bukatzeke, Iruñeko gazte batzuen artean ez dago ohitura handirik euskaraz egiteko eta artifizialtasuna eta gaztelaniaz egiteko joera handia ageri da elkarrizketan. Hain zuzen ere, 13. 14. eta 15. adibideetan ikusten da argi baino argiago joera hori; bertzaldetik, horietatik dira adin gutxiena duten hiztunak, hori ere azpimarratu beharko litzateke.

19. Bibliografia

- ALBERDI, Xabier. "Diskurtso-markatzaile berri bat: hurrenez hurren birformulatzailea". *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo (ASJU)*. XLV-1, 2001; 301-325 or.
- AMONARRIZ, Kike. *Eske hau superguaya da*. Sustatu interneteko albistegia. 2003. Hemendik hartua: <https://sustatu.eus/1051689395>.
- . "Gazte hizkerak-hizkera gazteak". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 68, 2008; 167-183 or.
- AMORRORTU, Estibaliz; GOIRIGOIZARRI, Jone; ORTEGA Ane; URLA, Jacqueline. *Euskal hitzun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2016; 280 or.
- ANDROUTSOPOULOS, Jannis. "Research on Youth Language", in U. Ammon, N. Dittmar, K.J. Mattheier eta P. Trudgill (ed.), *Sociolinguistics: An International Handbook on the Science of Language and Society*, 2. Edizioa. Berlin/New York: Mouton de Gruyter, 2005. 1496-1505 or.
- AUER, Peter. *Code-switching in conversation: Language, interaction and identity*. New York: Routledge, 1998; 350 or.
- . "The pragmatics of codeswitching: A sequential approach". In L. Milroy & P. Muysken (arg.), *One Speaker, Two Languages, Cross-disciplinary Perspectives*, Cambridge: Cambridge University Press, 1995; 115-135. or.
- AURREKOETXEA, Gotzon. "Hizkuntza estandarren eta dialektoen arteko bateratze joerak". In: Lakarra & Hualde (arg.); *Studies in basque and historical linguistics in Memory of R. L. Trask*; 2006; 133-161 or.
- AURREKOETXEA, Gotzon & UNAMUNO, Lorea. "Perpaua arteko euskara-gaztelania kode aldaketa". *Euskalingua*, 19, 2011; 25-30 or.
- BEREZIARTUA, Garbiñe. "Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo". *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 89(4), 2013; 25-42 or.
- BRIZ, Antonio. "La interacción entre jóvenes. Español coloquial, argot y lenguaje juvenil". In: *Lexicografía y Lexicología en Europa y América*, Madrid: Gredos, 2003; 141-154 or.
- CALATAYUD, Emilio. "En plan" la muletilla de moda entre los adolescentes. Hemendik hartua: <http://www.granadablogs.com/juezcaltayud/2016/04/en-plan-la-muletilla-de-moda-entre-los-adolescentes-en-plan-que-la-usan-para-todo/>. 2016.
- CASARES, Paula. *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa Nafarroako familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia; 2014; 454 or.
- DEWAELE, Jean-Marc. *Emotions in Multiple Languages*. Basingstoke: Palgrave Macmillan; 2010; 264 or.
- DORIAN, Nancy. *Language Death. The Life Cycle of Scottish gaelic dialect*; Philadelphia: University of Philadelphia Press, 1981.
- ELORDIETA, Gorka. & ROMERA, Magdalena. "The influence of social factors on the prosody of Spanish in contact with Basque". *International Journal of Bilingualism*, vol. 24, (prentsan).
- EPELDE, Iranzu; OYHARÇABAL, Beñat. "Code switching" en las variedades orientales del vasco, Spain", 2009, artc. 00389939, v1.
- ETXEBARRIA, Maitena. "Bilingüismo y code-switching en el País Vasco". In: *Las lenguas en la Europa Comunitaria II*, Amsterdam/Atlanta: Rodopi, 1998; 55-66 or.
- . "Español y euskera en contacto: resultados lingüísticos", *Revista Internacional de Lingüística iberoamericana*, II, 2 (4), 2004; 131-145 or.
- EZEIZABARRENA, María José. "Morfemas de concordancia con el sujeto y con los objetos en el castellano infantil". In: *Contemporary Perspectives on the Acquisition of Spanish: Vol I, Developing Grammars*, A.T. Pérez-Leroux & W.R. Glass (eds.), 1997; 21-36 or. Somerville: Cascadilla.
- . "Kode alternantzia" elebidun txikien hizkuntzak bereizteko gaitasunaren adierazgarri. *Eridenen du zertzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr*

irakasleari (1947-2008). Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 2015; 207-225.

FERNÁNDEZ-ULLOA, Teresa. "Spanglish y cambio de código en el Valle de San Joaquín", California", *Symposium Proceedings*, 2004; 82-92 or. Hemendik jasoa: www.csu.edu/~tfernandez_ulloa/spanglish.pdf,

GARCÍA MOUTON, Pilar. *Así hablan las mujeres*, Ed. La Esfera de los libros; 2003; 220 or.

GARIN, Larraitz; URÍA, Iñaki; ALEGRÍA Loinaz, and Ander CORRAL: "Kode-alternantzia aztertzeko hizkuntza-teknologiaren ekarpena". *Bat: Soziolinguistik aldizkaria* 104, 2017; 6 or.

GILES, Howard & OGAY, Tanya. "Communication Accommodation Theory". In: B. B. Whaley y W. Samter (koord.). *Explaining communication: Contemporary theories and exemplars* (Routledge Communication Series), 2007; 293-310 or.

GILES, Howard. & JOHNSON, Patricia. Ethnolinguistic identity theory: A social psychological approach to language maintenance. *International Journal of the Sociology of Language*, 1987; 68, 69-99. doi: 10.1515/ijsl.1987.68.69.

GÓMEZ TORREGO, Leonardo. "La gramática en Internet". *Lengua y escritura en Internet: Tres décadas de "redacción"*. 2001. Hemendik jasoa: http://congresosdelengua.es/valladolid/po-nencias/nuevas_fronteras_del_espanol/4_len-gua_y_escritura/gomez_l.htm; [21/09/2013].

GUMPERZ, John & HERNÁNDEZ, Eduardo. "Bilingualism, bidialectalism and classroom interaction". In: J. Gumperz (arg.), *Language in social groups*. Stanford: Stanford University Press, 1972; 311-339 or.

—. *Discourse Strategies*. Cambridge: Cambridge University Press, 1982; 225 or.

HERRING, Susan C., "Introduction". In S. C. Herring (ed.), *Computer-Mediated Communication. Linguistic, Social and Cross-Cultural Perspectives*. Amsterdam / Philadelphia: John Benjamins, 1996; 1-10 or.

IBARRA, Orreaga. "(e)la morfemaz osaturiko esaldien erabilera gaurko euskaldun gazteen mintzairan". *Anuario del Seminario de Filología Vasca: International journal of basque linguistics and philology*. 43. 1-2. (Beñat Oihartzabali gorazarre). 2009; 517-530 or.

—. "Zeba? eta Ze bada? Baztan-Bidasoa inguruko gazteen hizkeran. Aldakuntza linguistikoa abian", *FLV* 112, 2010; 75-85 or.

—. *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*; Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2011; 239 or.

—. "El code switching vasco-castellano en oraciones atributivas de hablantes jóvenes". *Oihenart*, 28, 2013, 115-130 or.

—. "Sare sozialak, euskalkiak ikertzeko baliabide gisa". *Euskal hizkera eta dialektoak gaur egun*. *Lapurdum* 3, 2015; 155-175 or.

IÑIGO, Patxi. "Bortzietako hizkeraren zenbait berezitasun gaurko gazteen mintzairan". *Euskera*. 1. 52 (2. aldia). Bilbo, 2007; 291-318 or.

IRIONDO, Alejandra. "Kode-alternantzia elebidun gazteetan: DS nahasiak." *Gogoa* 16, 2017, 25-56 or.

JØRGENSEN, Annette Myre. "Tío y tía como marcadores en el lenguaje juvenil de Madrid". In: *Actas del XXXVII Simposio Internacional de la Sociedad Española de Lingüística (SEL)*, 2008; 387-397 or.

LANTTO, Hanna. Conventionalized code-switching: Entrenched semantic-pragmatic patterns of a bilingual Basque-Spanish speech style. *International Journal of Bilingualism*, 19(6), 2015, 753-768 or.

MÉNDEZ-ORENSE, María. "Valores pragmático-discursivos de la construcción lingüística en plan. ¿Formación de un nuevo marcador?", *Philologia Hispalensis* 30/1, 2016; 123-144 or.

MONTES-ALCALÁ, Cecilia. "Blogging in Two Languages: Code-Switching in Bilingual Blogs. In J. Holmquist", A. Lorenzino & L. Sayahi (arg.), *Selected Proceedings of the Third Workshop on Spanish Sociolinguistics*, 2007, 162-170. or. Somerville, MA: Cascadia Proceedings Project. <http://www.lingref.com/cpp/wss/3/paper1537.pdf> helbidetik berreskuratua.

- MUÑO, Inma. "Pragmatic Functions of Code-Switching among Basque-Spanish Bilinguals". In: *Actas del I Simposio internacional sobre Bilingüismo*, Universidad de Vigo, 1997; 528-541 or.
- MUYSKEN, Peter. *Bilingual speech: A typology of code-mixing*. Cambridge: Cambridge University Press, 2000; 624 or.
- MYERS-SCOTTON, Carol. *Social motivations for codeswitching: evidence from Africa*. Oxford: 1993, Oxford University Press.
- O'ROURKE, Bernadette. & RAMALLO, Fernando. "The Native-Non native Dichotomy in Minority Language Contexts. Comparisons between Irish and Galician". *Language Problems and Language Planning*. 35 (2), 2011; 139-159 or.
- OÑEDERRA, Miren Lourdes. *Euskal fonologia. Palatizazioa, asimilaziora eta hots sinbolismoa*. Leioa: UPV/EHU, 1990.
- OYHARÇABAL, Beñat. "Ba- baiezkoa aurrikia", *Euskera aldizkaria*– XXIX (2.aldia), 1983; 352-354 or.
- PAGOLA, Jon. "En Donostia todo es sin más", 2014; *Kulturaldia*, 01/07/2014. Hemendik hartua: <http://www.kulturaldia.com/auskalo/en-donostia-todo-es-sin-mas/>.
- PÉREZ GAZTELU, Elizabete & ZULAIKA, Esther. "Adierazgarritasun zantzuak euskal gazteen txatetan". *Gogoa* 14, 2016; 105-130 or. DOI: 10.1387/gogoa.15632
- POPLACK, Shana. "Sometimes I'll start a sentence in Spanish y termino en español: towards a typology of code-switching", *Linguistics* 18 (778), 1980; 581-618 or.
- PUJOLAR, Joan. GONZÁLEZ, Isaac. & MARTÍNEZ, Roger. "Les mudes lingüístiques dels joves catalans". *Llengua i Ús*. 48, 2010; 65-75 or. Hemendik hartua: <http://www.gencat.cat/llengua>
- ROMAINE, Suzanne. *Bilingualism*. Oxford, UK: Blackwell, 1995; 402 or.
- ROTAETXE, Karmele. "Alternance codique et langue minoritaire". In: *Mélanges offerts à J.C. Corbeil: Langues et sociétés en contact*, Martel, P. & J. Maurais (eds). 1994; 395-408 or. Tübingen: Max Niemeyer Verlag.
- STENSTRÖM, Anna-Brita & JØRGENSEN, Annette Myre. "La función fáctica de los apelativos en la conversación juvenil de Madrid y Londres". *Actas del III Congreso EDICE. Universidad de Valencia*, 2008; 1-14 or.
- TEJERINA, Benjamín. *Nacionalismo y Lengua*. Siglo XXI de España; Madrid, 1992; 180 or.
- TORRES I VILATARSANA, Marta. "Els xats: entre l'oralitat i l'escriptura", *Els Marges* 65: 1999; 113-126 or.
- TUSÓN, Jesús. "Lenguaje, comunicacion y persuasión". In: Zubiaur J. R & Beti I. (arg.) *Mitos, teorías y aspectos del lenguaje*. Donostia. Deustuko Unibertsitatea, 1996; 71-82 or.
- WATZLAWICK, Paul, BAVELAS, Janet & JACKSON, Don D. (1967), *Pragmatics of Human Communication* [1985, *Teoría de la comunicación humana*. Herder]. <http://primeravocal.org/wp-content/uploads/2011/05/Watzlawick-Paul-Teoria-De-La-Comunicacion-Humana3.pdf>
- ZENTELLA, Ana Celia Preface. In: M. Niño-Murcia & J. Rothman (arg.). *Bilingualism and identity. Spanish at the crossroads with other languages*. Philadelphia: John Benjamins B.V., 2008; 3-10 or.
- ZHANG, Wei. "Multilingual creativity on China's Internet", *World Englishes* 24 (2), 2015; 231-246 or.
- ZIMMERMANN, Klaus. "La variedad juvenil y la interacción verbal entre jóvenes". In: F. Rodríguez González Félix (ed.), *El lenguaje de los jóvenes*, Barcelona: Ariel, 2002; 195-240 or.
- ZULAIKA, Esther. "Kode-aldaketaren tipologia euskal gazteen txatetan", *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*, 128, 2019; 339-357 or.